

Aizkibelen Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia: eskuizkributik argitalpenera

Ekaitz Santazilia

► **To cite this version:**

Ekaitz Santazilia. Aizkibelen Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia: eskuizkributik argitalpenera. Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta, 2011, pp.203-238. <artxibo-00641578>

HAL Id: artxibo-00641578

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00641578>

Submitted on 16 Nov 2011

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

FONTES
LINGVÆ VASCONVM
stvdia et
docvmenta



SEPARATA

Año XLIII • Número 113 • 2011

*Aizkibelen Euzkeratik erderara biurtzeko
itztegia: eskuizkributik argitalpenera*

EKAITZ SANTAZILIA

Aizkibelen *Euzkeratik* *erderara biurtzeko itzategia:* eskuizkributik argitalpenera

EKAITZ SANTAZILIA*

SARRERA¹

Jose Francisco Aizkibel Epelde azkoitiarraren [1798-1864] bizitzaren berri askok eman izan dute eta gehienak gizon polifazetikoak izan zela bat datoz. Elozegi (1949), Urrutia (1924) edo Garatek Aizkibelen bizitzaren datuak jaso dituzte eta azken horrek azkoitiarraren lanen zerrenda baliagarria ere badakar (1947-8: 530-532, 1962). Agirrek ere bizitza eta obraren deskribapenak eskaini dizkigu (1983), horra garrantzitsuenak: eskuizkributan, “Diccionario Español-Vascongado” edo “Gramática analítica de la lengua bascongada” aipa ditzakegu; azken horretan ortografia eta literaturari buruzko disertazioak dakartza. Bestelako hiztegi batzuen eskuizkribuak ere ezagunak zaizkigu: “Diccionario de Toponimia” edo “Diccionario de Inflexiones Verbales” eta etimologiei ere eskaini zien bere tarteak, “Tratado de Etimologías”-en, esaterako. Bizi izan zen bitartean euskararekin lotutako ezer gutxi argitaratu zuen eta lan zenbait hil ondoan kaleratu dira (Agirre 1983: 246-248).

Obrari buruzko nahas-mahasak ere ez dira gutxi: egiazki autorearen lumak ekoitzitako lanen inbentarioa osatzeak arazoak dakartza eta zenbait eskuizkribu agertu ahala Aizkibeli leporatu izan zaizkio (ikusi, esaterako, Ga-

* UPV-EHU/UPNA-NUP.

¹ Lan hau Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileak Prestatzeko eta Hobetzeko Laguntzen programako BFI-2010-221 kodedun laguntzari esker egin ahal izan da. Esker mila, halaber, Ricardo Gómezi eta Koro Segurolari beren iruzkinengatik, Blanca Urgelli materiala nire eskutan uzteagatik eta Katalin Cascori, ikerketan lagun eta laguntzaile nekaezina izan baita.

rate 1968, Garmendia 1994, Garriga 1952, Gómez 2008 eta 2009 edo Satrustegi 1977 eta 1979b).

Oraingoan hil ondoan argitaratu zioten obra lexikografiko ezagunari helduko diogu: *Diccionario Basco-Español* (1883-4), *Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia* izenez ere ezaguna.

Esan dugun bezala, hiztegiaren argitalpena Aizkibel hil eta gero egin zen; beraz, editoreak ez zuen egilearen beraren irizpide eta aburua zuzenean jarraitzerik izan. Zorionez eta ohikoa ez den bezala, eskuizkribua eta edizioa, biak ditugu egun ikusgai. Eskuizkribua amaitu zenetik argitalpena egin zenerako ia berrogei urte pasa zirenez, euskarari buruzko ezagutzak, teknika lexikografikoak eta irakurleen interesak aldatuko ziren heinean, eskuizkribuaren eta egin zen argitalpenaren artean desberdintasun eta berrikuntza zenbait topatuko genituela izan da gure hasierako hipotesia.

Gutxitan dugu euskalaritzaren munduan eskuizkribua eta edizioa konparatzeko aukera eta Aizkibelen *Itztegiak* mintzatu direnek edizioa soilik baliatu zutela kontuan izanda, bien arteko konparazioa egin dugu lan honen lehen zatian; edukiak eta formatuak alderatu ditugu. Bigarrenik, argitalpen prozesuan gertatutako gorabeherak azaldu ditugu. Alerik ale desberdintasunak daudela ikusita, alde batetik faszikuluka argitaratu izanaren ondorioak aztertu ditugu eta, bestetik, argitalpen kopuruari buruzko nahas-mahasari argi pizar bat ematen saiatu gara, aleen konparaziotik ateratako aurkikuntza zenbait hona bihurtuz.

Finean, ikusiko dugunez, hiztegiaren edizioko ezaugarri zenbait ez dakizkioke Aizkibeli zuzenean egotzi, bai gero egindako moldaketa edo akatsak izan direlako, edo eskuizkribuko hutsak zuzendu egin direlako. Edonola ere, eskuizkribua behatu izanak Aizkibelen beraren zuzeneko lekukotasuna eskaini digu, bere lan egiteko moldeez zerbait gehiago jakiteko.

1. EUZKERATIK ERDERARA BIURTZEKO ITZTEGIA

Tolosan argitaratu zen Eusebio Lópezen moldiztegian, 1883 edota 1884 urteetan, egilea hil eta 20 bat urtetara, beraz. Atalka, faszikuluka argitaratu zen, eta harpidedunei bidali zitzaizen lehenik. Azkibelen helburua Larramendiz geroztik egon ez zen lan lexikografiko zabala egitea izan zen, filologoen lanaren lagungarri eta hizkuntz altxorraren gordetzaile, euskarak behar zuen garapena Europa mailan lor zezan:

...para los estudiosos aplicados á estas dos ciencias [filologia eta etnografía], que siempre van unidas, he trabajado en reunir esta recopilación de voces bascongadas, que podrán serles de alguna utilidad en sus investigaciones... (Aizkibel 1883-4: "Prólogo")

Hiztegia norentzat idatzi zuen, beraz, ezaguna zaigu, baina dakigunez, ez zuen orduan argitaratzerik izan eta pentsatzekoa da argitaratu zenean hiztegi horren publikoa alda zitekeela. Edizioaren hondarrean harpidedunen zerrenda heldu da, oso eranskin interesgarria², XIX. mendearen azken 20 urteetan horrelako obra baten publikoa zein ohi zitekeen jakin nahi badugu. 1420 bat

² Eta ohikoa Lópezen moldiztegiako lanetan bederen. Campionen *Gramática de los cuatro dialectos literarios*-ek (1884) ere badakar.

harpidedunen izenak ageri dira eranskin horretan eta bertan esaten zaigunez: “Todavía no hemos recibido la lista de los Suscritores de algunos puntos lejanos” (Aizkibel 1883-4: z. g., Harpidedunen zerrenda); hartara, gehiago izanen ziren harpidedunak eta gehiago oraindik gerora erosiko zutenak. Orduko euskal hiztegi bat izateko izugarritzko arrakasta erdietsi zuela esatera ausar gintezke. Aleak, edonola ere, ez ziren denak Euskal Herrian saldu; Madrilerale franko joan ziren eta Ameriketara zein Europara ere bai. Alde horretatik, eta ezagutu izan balu, Aizkibel pozik geratuko zen bere lanaren zabalkunde geografikoarekin. Herri txikietan eskolak eta apaizak izan ziren erosle nagusiak, baina orduko burgesia, noblezia eta kultur-jendearen artean ere abegi ona izan zuen. Harpidedun ezagunen artean, aipatzekoak dira: Jose Mante-rola, Marcelino Soroa, Felipe Arrese-Beitia, Federico Baraibar, Federico Berasteguigoitia (*sic*, Belaustegigoitia), Arturo Campion, Juan Iturralde y Suite (*sic*), Florencio Arsolaga (*sic*, Ansoleaga), Cánovas del Castillo, Pi y Margall, Fidel Fita, Becerro de Bengoa, Vinson, Intxauspe, Duvoisin, Abadia, Maurice Harriet, Bonaparte printzea, Van Eys eta abar.

Bistan dena, Aizkibelek bere helburua bete ikusi zuen, hil ondoan izanik ere, filologoez gain, beste alorretako jende askok eskuratu baitzuen bere obra³.

2. ESKUIZKRIBUTIK ARGITALPENERA

Konparazio lana egiteko ez dugu hiztegi osoa kontuan hartu, lagin bat baizik. Testu argitaratutik hautatu dugu lagina, EHUko Koldo Mitxelena liburutegian dagoen fotokopiatik, hain zuzen. Honako hauek baliatu ditugu konparaziorako: azal txikia, azala, kromoa, kromoaren deskribapena, López editorearen eskaintza Gipuzkoari, *Real Academia*ren ebazpena, laburduren zerrenda, “Euskaldunak” hitzaurrea, gaztelaniazko “Prólogo” ortografiari buruzko pasartearekin, <A> letrako 2-7. orrialdeak, -ko 79.a, <C>-ko 145. eta 146.ak, <D>-ko 189.a, <E>-ko 225.a, <H>-ko 357.a, <Ch>-ko 383.a, <N>-ko 735. eta 753.ak, <S>-ko 907 eta 911 bitartekoak eta <Z>-ko 1028. orrialdea. Argitalpenak eranskin bat ere badu, baina kanpoan utzi dugu, eskuizkribuan (hemendik aurrera ES) ez delako agertzen. Azkenik, harpidedunen zerrenda ere hartu dugu. Horrezaz gain, ale argitaratuen arteko konparaziorako berrogeitazortzi ale erabili ditugu (cf. I Eranskina).

2.1. Eskuizkribuen gordelekua

Hiztegiaren eskuizkribua 1878. urtean Toledotik ekarri zuen José Mantrolak, Aizkibelen gainontzeko paperekin batera, Tolosako Udal Artxibora. Hura berritzen ari ziren bitartean Donostian egon zen Udal liburutegian eta berriketa lanak amaitu zirenean Tolosara itzuli zen. 1925 aldera Donostiara joan zen berriz, Diputazioaren liburutegira (Garate 1962: 76). Gaur egun Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen da “091 AIZ euz” signaturapean.

Argitalpenak, baina, badu hiztegiatz aparte, eranskin bat A-tik Z-rako beste hitz zerrenda batekin, Aizkibelek beranduago atondua. Eranskin horren

³ Saldutako ale kopuru ugariaren erakusgarri da, halaber, liburu zaharren azoka eta dendetan Aizkibelen hiztegiaren lehen edizioa aurkitzea ez dela sobera zaila.

eskuizkribua, aldiz, galdutzat jo dezakegu, ez baitago gaur egun ez Koldo Mitxelena Kulturunean ez agerian beste inon. Dena den, noiz galdu zen susmoa badugu. *Euskal-Erria* aldizkarian irakur dezakegunez (Manterola 1883: 448), hiztegia argitaratzen hasi zirenean agertu zen eranskina diputazioaren artxiboan eta Lópezek hori ere argitara emateko baimena lortu zuen. Badakigu jakin, hiztegia argitaratzeko Lópezek diputazioko artxiboan zeuden Aizkibelen paper guztiak eraman zituela, gero bueltatzeko konpromisoa hartuta (Izengabea 1882: 59). Hori horrela, paperok Koldo Mitxelena Kulturunean topatzea espero genuke. Dena dela, baliteke Lópezek ES bai, baina beste paper asko itzuli ez izana, Isaac López Mendizabalek, Eusebio Lópezen semeak, Justo Garateri 1947an idatzitako gutun batek pentsarazi digunez (Garate 1962: 78):

[E]n mi casa de Tolosa había una muy respetable colección de trabajos inéditos de Aizkibel. Debieron traerlos, por lo que yo supongo, allá por el año 1882 [de Toledo], cuando mi finado padre publicó el Diccionario del azkoitiarra. (...) había una traducción de un trabajo de Humboldt.

eta aurreraxeago:

Todo lo considero ya perdido. (...) Esos libros de Aizkibel los ofrecí verbalmente en más de una ocasión a algún diputado provincial para que los llevarsen, pero aplazándose la decisión, al fin debieron quedar en mi casa. Por lo menos, no recuerdo bien si los llevaron.

López Mendizabal oker zebilen eta Aizkibelen testuok ez zituzten zuzenean Toledotik ekarri, Diputazioaren Artxibotik baizik, lehen esan dugun bezala. Agertu zenean, eranskina ere Lópezenera joan zen. Gure ustez, ordea, testuak artxibora itzultzeko garaian segur aski ez zituzten denak bueltatu eta batzuk Lópezen etxean geratu ziren, López Mendizabalek gogoratzen dituenak hain zuzen. Oso litekeena da eranskina horien artean egotea. López Mendizabalek galdutzat ematen ditu paper horiek, diputazioa horien gainean axolagabe agertu baitzen nonbait.

Bestalde, López Mendizabalek gogoan du Humboldt-en lan baten itzulpen amaigabea zegoela paper horien artean. Inork pentsa lezake Arginzonizek itzulitako Humboldt-en *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache* (1817) izan daitekeela hori, Aizkibelek itzulpenari egindako oharrekin batera, edo Azikibelek eskuartearen izan zuten *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache* (1821) lanaren itzulpena ere izan liteke (Gómez 2009: 271), berau ere Arginzonizek egina. Erakutsiko dugunez, ez da posible ez bat ez bestea izan daitezen.

Itzulpen horiek Urkixoren eskuetan amaitu zuten Manterolaren ondorengoei erositara (Urkixo 1933). Manterolak Toledotik 1878an Aizkibelen paperak Diputazioko artxibora ekarri zituen (Garate 1962: 76) beretzat gordetako zituen itzulpen horiek⁴. Manterola 1884an zendu zen eta itzulpenak bere ondorengoen eskutan geratu ziren, Urkixori saldu arte. Ezinezkoa da

⁴ Horrelakoak aski praktika ohikoak izan zen artxibozain eta liburuzainen artean, gaur egun ezinezkoak begitantzen zaizkigun arren.

itzulpen horietako bat López Mendizabalek gogoan duen berbera izatea, hala izanez gero Manterolak hil baino lehen eraman behar izanen zuelako Lópezen etxetik, gero bere ondorengoan eskutan egon bazen. Baina Manterola 1884an hil zen, Isaac López Mendizabalek oraindik bost urteak bete gabe zituenean; ezinezkoa da adin horrekin Humboldt lan bat gogoan izatea, beraz, 1884 baino beranduago ikusiko zuen Humboldt lanaren itzupen hori etxean. Zein den, tamalez, ezin dugu jakin.

2.2. Formatua

Eskuizkribuaren formatua deskribatuko dugu lehenik, ezagunagoa den argitalpenarekin eginen dugun konparazioa errazagoa suerta dadin. Estalki gorri gogorrez enkoadernatua ageri zaigu, geroko argitalpenak izanen zuenaren antzeko estalkiekin. Bizkarrean “Aizkibel Diccionario Basco-Español” dio: Lópezek berak enkoadernatu izana kontuan hartu beharreko aukera da, nahiz eta *Euskal-Erria* aldizkariak gogoratzen digunez, Diputazioak Lópezen eskuizkribua uzteko baldintzetako bat jaso bezala itzultzea izan (Izengabea 1882: 59)⁵. Eskuizkribuaren orriak marradunak dira eta 30 x 21’5 cm-ko neurria dute. Bestalde, pentsatzekoa da hiztegi argitaratuari izenburua Lópezek berak eman ziola (*Diccionario Basco-Español*); izan ere, gaztelaniazko izenburua ez da zuzenean Aizkibelek ezarritakoa: eskuizkribuan soilik *Euzkeratik Erderará biurtzeko Itztegia* izenburua da ageri dena; *Diccionario Basco-Español* Aizkibelek C letrari buruzko disertazioan aipatzen du (Aizkibel 1883-4: 146).

1200 orrialde inguru kalkulatu dizkiogu eskuizkribuari. Bertan, azala, “Euskaldunak” hitzaurre amaitugabea⁶, gaztelaniazko “Prólogo”, hiztegia bera eranskinik gabe eta “Analogía entre las partes de la oración en todas las lenguas” eskuizkribu amaitugabea daude.

Paperak ur marka desberdinak ditu, baina ez orri guztietan. Ur markak orrika ageri dira, ez pleguka, baina azalak eta “Euskaldunak” hitzaurreak ez dute markarik ageri. Ondoren testurik gabeko orri batzuk daude PF (cf. 1a) ur marka dutenak. “Prólogo”-k P ur marka du (1b) nabarmen. Hiztegiak, hasieratik “Mutil” sarreraraino guk FRC hizkiekin identifikatu dugun ur marka (1c) eta FD hizkiduna izan litekeena (1d) txandakatzen ditu; sarrera horretatik aurrera P ur marka baino ez da ageri orri guztietan, hiztegiaren amaieraraino. “Analogía entre las partes de la oración” eskuizkribuak, aldiz, R edo A izan litekeen ur marka du (1e) eta gainera azken horren orri guztiek zigilu bat daramate (2). Eskuizkribu hori amaituta, zigiludun⁷ testurik gabeko orri zenbait daude, azken horiek ur markarik gabeak.

⁵ Baliteke Aizkibelek eskuizkribu honen aurretik beste bertsio batzuk egin izana, oso bakanak baitira aurkitzen diren ezabaketa edo zuzenketak. Edonola ere, argitalpenerako Lópezek honakoa erabili zuela frogatuko dugu aurrerago.

⁶ “La introducción escrita en vascuence que dejó sin concluir el malogrado Sr. Aizkibel, ha sido terminada, á instancias de la Diputación de Guipúzcoa, por el ilustrado bascófilo D. Manuel A. de Antía, rector de Urnieta, quien ha desempeñado su cometido con sin igual acierto” (Iturralde y Suit 1882: 348).

⁷ Dirudienez, Aizkibelek maiz baliatzen zuen halako zigiludun papera. “Euskera” eskuizkribuan ere ageri da, baina 1848ko datarekin (Gómez 2009: 262).

(1) a)⁸



b)⁹

c)¹⁰



d)¹¹



e)¹²



(2)¹³



⁸ Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiaren jatorrizkoa (Gipuzkoako Foru Aldundia). Hemendik aurrera KMK laburdura baliatuko dugu.

⁹ KMK.

¹⁰ KMK.


¹¹ KMK.

¹² KMK.

¹³ KMK.

Hiztegiko sarrerak bi zutabetan banatuak daude argitalpenean bezala, eta izenburutxorik ez da ageri. Argitalpenean datorren eranskina ez dago, aipatu gisan, eskuizkribu honekin batera. Aizkibelek jadanik ES-eko “Prólogo”-n dioskunez, “Si bien a estas fechas tengo concluido mi Vocabulario bascuence-español, tengo que añadir un largo apéndice” (Aizkibel 1883-4: “Prólogo” v); hortaz, eskuizkribu honetan azaltzen dena amaitua zuen (hiztegia barne), beste eskuizkribu batean eranskina idatzi zuenean. Esaldi honek, bestalde, lehen aipatu dugun (cf. 5. oin-oharra) ES-ek duen ezabaketa eta zuzenketa eskasiarekin batera, ES-ek aurretik beste bertsio batzuk izan zitzaakeela bermatzen du. “Prólogo” hiztegiaren aurretik dator ES-en, beraz, hiztegia baino lehenago eskuizkribatu zen. Aipiak dioenez, “Prólogo” idatzi zenerako hiztegia amaitua bazuen, ES-en “Prólogo” ondotik datorren hiztegia jadanik (ia)¹⁴ amaitua zegokeen bertsio batetik kopiatua dateke.

(3)¹⁵



Orri baten adibidea: bi zutabe eta izenburutxorik ez.

Argitalpena (hemendik aurrera zenbaitetan AR deituko duguna) oihalez esalitako kartoizko estalkidun¹⁶ liburuki bakar batean edo bitan egin zen (cf. §3 honi buruzko xehetasun gehiago jasotzeko). Kortesiartzko orri bat du hasieran eta beste bat bukaeran, azal txikia gero eta azala azkenik, zeinaren ifrentzuan eskubide orrialdea datorren, “es propiedad” inskripzioarekin¹⁷. Ondoren Eusebio López editorearen eskaintza Gipuzkoari, kromoa bere deskribapenarekin, laburduren zerrenda, Espainiako Erret Akademiaren oniritzia, Aizkibelen “Prólogo” (“Razones para el cambio de ortografía” barne) eta “Euskaldunak” aurkezpen testua datoz, baina alerik ale horien ordena aldatzen da (§4). Horren ondotik hiztegia bera hasten da eta amaieran harpidedunen zerrenda dago.

¹⁴ “Ia” diogu, gero (§2.5.1) erakutsiko dugunez, eskuizkribuan hutsarte batzuk baitaude, beranduago gehiketarako egiteko nahia utziak.

¹⁵ KMK.

¹⁶ Hiztegia deskribatzeko Martínez de Sousa (2003) lanaren terminologia baliatu dugu.

¹⁷ Bi liburukitan enkoadernatutako aleek liburuki bakoitzean daramatzate kortesiartzko orriak, azal txikia eta azala.

Hiztegiari 1304 orrialde inguru zenbatu dizkiogu. Folioko tamaina du-te orriek (31'5 x 22'5 cm), proportzio normalizatuarekin bat. Lau folioka plegua zenbatzen da (salbu 5.a, inprenta huts batengatik) eta orrialde bakoitzak bi testu-zutabe ditu, zein bere izenburutxo trilateroarekin. Ordena alfabetikoan antolatutako hiztegi honetan letra berri bakoitza beti orrialde bakoitian hasten da. Sarrera-buruak letra larri txikietan emanak dira eta paragrafoak koska frantsesez atondu dira. ES-en sarreraren artean hutsuneak aurkitzen ditugu gehiketak egiteko, noizbait ere hiztegia osatze aldera; izan ere, hori ez zen izan behin betiko testua: “no pienso por ahora, publicar mi obra, hasta tanto que pase muchas veces por el crisol de una crítica justa y razonada, valiéndose para ello de personas inteligentes en la materia” (Aizkibel 1883-4: “Prólogo” v). López editoreak ez zion baieztapen horri garrantzirik eman eta obra gutxi gorabehera zegoen horretan argitaratu zuen. Aurrerago erakutsiko dugun moduan, lana guztiz amaitu gabe egotearen ondorio batzuk badira edizioan (cf. esaterako, laburdurei buruzkoa §2.5.3). AR-en, jakina, gehiketatarako hutsune horiek ez dira errespetatu eta sarrera guztiak elkarren segidan doaz, aditz eta deklinabide paradigmak sartzen direnean salbu, horiek espazio baten bidez bereizi baitira gainontzeko sarreretatik.

Euskal-Erria aldizkarian datorrenez (Izengabea 1882: 59), Diputazioak, hiztegia argitaratzeko baimenaren truke, López baldintzen artean honakoa ezarri zion: “La reproducción del Diccionario del Sr. Aizkibel se hará ajustándose en un todo al texto manuscrito, sin que en manera alguna, ni por ningún motivo pueda ser alterado o modificado”. Orain arte azaldutakoa agindu horri doitzen zaio hein handi batean, baina aurrerantzean ikusiko dugunez, Lópezek ez zuen diputazioaren nahia erabat bete.

2.3. Tipografia

Ikus ditzagun ES zein AR-etik hartutako adibide bana, tipografiari buruzko zehaztasunez jabetzeko:

(4) ES:

- a) Sortá. () Haz, Manajo de trigo, de esparragos, de leña etc. || Lora sortá. Ramillete.
- b) Suarria. (Eskul. 3) Pedernal; piedra de chispas.
- c) Achurkina (D. T.) Fabricante de azadas || Cavador, o jornalero que cava.
- d) Chalmá (D. T.) Jalma, albarda || Chalma kendu. Desenalbardar.

AR:

- a') SORTA (D. T.) Haz, manajo de trigo, de espárragos, de leña, etc. LORA SORTA. Ramillete.
- b') SU-ARRIA (ESKU. L. III.) Pedernal, piedra de chispa.
- c') ACHURKIÑA (D. T.) Fabricante de azadas || Cavador, ó jornalero que cava.
- d') CHALMA (D. T.) Jalma, albarda. CHALMA KENDU. Desenalbardar.

Begibistakoa da ES-en ez dagoela osoki letra larriz idatzita dagoen hitzik; AR-en, ordea, versalitaz agertzen dira sarrera-buruak eta azpisarrerak. Azken horiek ES-en azpimarratuak agertu ohi dira (cf. 4a eta 4a').

ES eta AR-en artean bada desberdintasun garrantzizko bat sarrera-buruen eta azpisarren tipografiari dagokionean. AR-en sarrera-buruen deklinabide, eratorpen edo bestelako morfemak gidoi bidez banatuak daude, esaterako: *GIZON-EKIN*, *dizki-EGUNEAN*, *SOÑU-GILLEA* edo (1b) eta (1b') adibi-deetako *SU-ARRIA*. Are gehiago, banaketa morfologiko gardena ez duten hitzetan, batzuetan horrelako gauzak ageri dira: *SOÑ-UZTAIA* (soñu+uztaia), *NAGITSUA-GO*, nahiz eta <A> letran oso bakanak diren banaketa morfologiko horiek, paradigmetan salbu. Edonola ere, argi geratu behar da gidoi bidezko morfema banaketak edizioan baino ez direla kausitzen ahal, hots, ez direla inolaz ere Aizkibelenak; hortaz, euskal morfologiaren inguruan egin-dako saioa 1883 urte inguruan Tolosako editoreak edo enkarguz beste inork egin zuen eta ez da Aizkibelen euskarari buruzko ideiekin lotzen ahal.

Aizkibelek ES-en zenbakiak zifren bidez adierazteko ohitura du baina edizioan, estilo kontu hutsengatik segur aski, zifrak zenbaki erromatarren bidez ordezkatu dira (cf. 4b eta b').

Sarreretan, espero bezala, antolakuntza eta puntuazio zeinuak daude. Bai AR-en bai ES-en puntuazio zeinuak berberak dira: puntua, koma, puntu eta koma eta pleka bikoitza (ll) erabiltzen dira, baina ez dira beti ES-en agertzen diren kasu berberetan AR-en erabili.

ES-en puntuazioan dagoen sistematikotasun eza nabarmena da, batez ere, eskuizkribuaren hasiera eta amaiera konparatzen baditugu. Horretaz jabeturik, AR-en koherentzia mantentzen saiatu dira, baina ez dute beti lortu, ziur aski Aizkibelek ES-en zekarren puntuazioa zuzen-zuzenean moldatu gabe kopiatzeak dakarren erosotasuna gailendu zen heinean. ES-en ere bai, baina AR-en batez ere, pleka bikoitzak adierak bereizteko erabiltzen dira (cf. 4c'); azpisarrerak bereizteko, aldiz, Aizkibelek plekak erabili ohi ditu, baina AR-en kendu egin dira oro har, azpisarrera letra larriz egoteak markatzen duelako hasiera (cf. 4d eta d')¹⁸. Edonola ere, sistematikotasun eza nabarmena da bai AR-en, bai ES-en.

(5)-ek aditzera ematen duenez, AR-en zenbaitetan letra etzanak ageri dira, oro har azalpenak gehitzen direnean eta ES-en, horiek batzuetan azpimarraturik agertzen badira ere, ez da sistematikoa. Beste adibiderik badugu: *EPERR-IDIA* sarrerako azalpena, AR-en letra etzanez ageri dena, azpimarratua dago ES-en, baina *ERAA* sarrerakoa, aurrekotik ez sobera urruti, ez dago hala.

- (5) ES: Adasta (D. T.) Salva, en la comida o bebida
AR: ADASTA (D.T.) Salva, en la comida ó bebida.

Aizkibelek "Euskaldunak" hitzaurrea amaitu gabe utzi zuen eta hori euskaraz idatzi zuen ekoizpen bakan bezain interesgarria da, egilearen beraren hizkeraz jabetzeko. Atal horretan puntuazioa aldatu da zenbaitetan, komak batik-batik, baina puntu eta aparte bat ere bai. Puntuazioaren gaurkotzea gertatu da eta gaur egungo puntuazio sistematik hurbilago dago AR-ekoa, ES-ekoa baino. Il-do berean, letra larri batzuk ere orduko sistemara ekarri dira: ES-en *Prusiatar* edo *Euskerazko* dauden bitartean, AR-en letra xehez ageri dira.

Arestian aipatzen genuen gidoi bidezko morfema banaketa hitzaurreko zenbait hitzetan ere ageri da AR-en, baina ez ES-en, jakina: *itz-aurrean* edo *itz-tegi* gidoigabeak dira eskuizkribuan.

¹⁸ Kontrakoaren adibideak ere badira: *ADIGARRIA* sarreran esaterako, *Significación* eta *prospecto* hitzen arteko plekak ez daude ES-en; bai aldiz, *Inteligible*-ren aurretikoak.

2.4. Grafia eta fonologia

Aizkibel ezaguna da, jadanik XIX. mende hasieran euskal grafia bat proposatu zuelako, gaur egungoarekin antz handia duena, bide batez (Satrustegi 1979a). Pentsatzekoa da lanetan grafia horri lotuko zitzaioela, baina gauzak ez dira uste bezain argiak. Eskuizkribuan bere grafia sistema jokamolde tradizionalagoekin nahastua ageri da eta argitalpenean hori berdintzen saiatu dira, nahiz eta kontradibideak badiren. Datozen lerroetan Aizkibelek erdal grafiari eta euskalkiari zion halabeharrezko lotura adierazten saiatuko gara.

Lehenik eta behin, argi gera dadila, berriz ere, berak bazekiela bere eskuizkribuko grafia ez zela beti koherentea, baina gogoan izan bertsio hori ez zela momentuz argitaratzeko moduko ezer. Bere hitzetan: “como he adoptado el nuevo sistema de ortografía que hallo más razonable, no pienso por ahora publicar mi obra...” (Aizkibel 1883-4: “Prólogo” v).

§2.3.-n aipatu dugun “Euskadunak” hitzaurreak <c> batzuk baditu ES-eko bertsioan, *Franzian*, *Provincia*, *cegartik* edo *cer* bezalako hitzetan, eta horiek <z> bihurtu dira AR-en, grafia gaurkotuta¹⁹. Aizkibelek grafia berriari buruzko pasartean hau dio: “yo uso de la k en *ka, ke, ki, ko, ku*, porque esta letra por si solo llena mis necesidades...” (1883-4: “Prólogo” VII) eta “Euskaldunak”-en betetzen saiatzen da, baina argitalpenean horri muzin egin eta ES-en *asko*²⁰, *asabak*, *aregandik* eta *billatuko* dugun bitartean, AR-en <c>-z eman dituzte hitzok, jatorrian ez zeuden <c> eta <k> arteko txandaketak agertuz.

Denbora berean, Aizkibeli ez zaizkio gustatzen /g/ soinurako <u>-dun digrafoak: “no debe preceder la u en *guizon, guero*, etc.; (...) sino que se debe suprimir, y escribir *gizon, gero*, etc.” (1883-4: “Prólogo” VII). Baina Aizkibel bera da araua apurtzen lehena, ES-en *eguiten* dagoen bitartean, AR-eko “Hitzaurrea”-k *egiten* baitakar.

Dударик gabe, ES-eko “Euskaldunak” hitzaurretik AR-ekora zerbait aldatzen bada, fonologia da. Aizkibelek euskalkiko ezaugarri fonologiko batzuk agertzen ditu testu horretan (gero hiztegian ez daudenak) eta argitalpenean saihestu dira. Horra zenbait adibide:

- (6) a) ES: *euskel, eskuera, ifiniak, jente, ecein, onore, orietan*
AR: *euskal, euskeraz, ipiniak, jende, ze, ohore, oietan*
- b) ES: *aijen, errijetan, begijak andijarekin, eiztarijak, anaijeri, gustijari*
AR: *ayen, errietan, begiyak, andiarekin, eiztariak, anaiyei, guztiai*
- c) ES: *gauzia*
AR: *gauza*
- d) ES: *gustian, gastelaniaz, bastertzen, astartzen, eskutu, irabasi*
AS: *guztian, gaztelaniaz, baztertzen, aztartzen, ezkutu, irabazi*
- e) ES: *azko, aberatzenak*
AR: *asko, aberatsenak*

ES-en usu kontsonante anti-hiatikoa ageri da (6b). Argitalpenean <j> horiek guztiak ezabatu dira eta bakan batzuetan <y> sartu; *ayen, begiyak* edo

¹⁹ Aizkibelek berak ES-en *Franzian* idazten du pixka bat gorago.

²⁰ Egia da Aizkibelek berak ES-en *asco* ere idazten duela lerro batzuk beherago.

anaiyei dira horren adibide. Morfologian ere badira aldaketak; datibo pluralerako, esaterako, aurreko adibideek erakutsi bezala, *-ari* azaltzen da ES-en eta *-ei* aldatu da AR-en. Artikuluaren disimilazio (*-a+-a>-ea*) fenomenoaren adibideak ere badaude ES-en, testu inprimatuan kendu badira ere (6c).

Mendebaldeko (eta erdialdeko) hizkeretan bezala, Aizkibelek txistukarien neutralizazioaren adibide gardenak ditu ES-en. Testuinguru ohikoenean, herskari horzkari aurrean, beti apikaria dakar (6d); jatorrian apikari diren forma mailegatueta ere apikaria du eta ez euskaraz ohikoa den bizkarkaria, *eskutu* hitza adibide. Bokalarterokik ere badu, *irabasi* kasu. Horiek denak AR-en bizkarkariaz ordezkatu dira. Txistukarien neutraltze horren adibiderik politenetarikoak *azko* da, hiperzuzenketaz egina, eta AR-en zuzendua. AR-en apikaria baliatu dute, bestalde, ES-ek *aberatzenak* darraren tokian (6e).

Hitzaurrea alde batera utzita, egin dezagun jauzi hiztegiara berera. Aizkibelek, euskal autoreek ohi ez bezala, azentu grafikoak erabiltzen ditu, nahiz eta oso bakan. Adibide batzuk, honakoak: *HARÁ, CHALKIÁ, CHALKARRÁ, NEURRITÚ, NEURRI BAGERÓ, SORRÁ, SORKIDARÓ, SORRIRÓ, SORIEZKIRÓ, SORTÁ, SORTIZKORÓ, SORTÚ, SOSTAGIRÓ, SU ARMÁ, SUARRÁ, SU ANTÚ*, etab²¹. AR-en denak kendu dituzte, dudarik gabe, ageri duten sistematikotasun ezagatik. ES-en, hiztegiaren amaierako letratan gehiago agertzen dira hasieran baino eta ez da erraza noiz eraman behar duten asmatzea, nahiz eta bistakoa den adibideotan, *-ro* atzizkiak, *-tu* partizipioak eta *-a* artikulua hartu ohi dutela, baina inolaz ere ez beti.

AR-en grafia gaurkotzeak egon dira, Aizkibelen beraren sistemara egokitzeko. Izan bitez honako adibideak horren isla:

- (7) a) ES: *guizon, balaku guezurtia*
AR: *gizon, balaku gezurtia*
- b) ES: *gizonaquin*²²
AR: *gizona-kin*
- c) ES: *adaussia*
AR: *adauſia*

Esan bezala <e> eta <i> aurreko <g> ondotik <u>-rik ez idazteko iradokitzen du Aizkibelek (1883-4: “Prólogo” VII), baina ES-en bertan badira salbuespenak. <A> letraren hasieran *GIZON* hitzaren deklinabidea ageri zaigu: AR-en *GIZON* idatzi duten bitartean, ES-en *GUIZON* dugu (cf. 7a) eta *BALAKU GUEZURTIA*-rekin orobat gertatzen da. “Yo uso la *k* en *ka, ke, ki, ko, ku*” dio Aizkibelek (*ibid.*), baina ES-en *-quin* bezalakoak aurkitzea ez da zaila, hiztegiaren hasierako letratan batez ere, AR-en gaurkoturik aurkituko ditugun arren (cf. 7b). Gauza bera gertatzen da diakritikoekin, *ADAUSSIA* baitugu ES-en eta forma diakritikoduna AR-en (7c), Aizkibelek berak egindako proposamenari jarraiki (*ibid.*). Ildo beretik, ES-en diren <c> batzuk <z>-ren bitartez ordezkatu dira AR-en (*CHANKA-LUCE, ABSOLBICIONEA*). Gra-

²¹ Hemengo asko Larramendiren *Diccionario Trilingüe* edo *Hiztegi Hirukoitzetik* –hemendik aurrera *HH-* (1745) hartuak dira eta bertan azentu grafikorik gabe azaltzen dira.

²² Eredu gisa AS-en *gizon* hitza erabili bada ere, deklinabide paradigma hau <A> letraren barnean dator; izan ere, lehendabiziko sarrera *GIZON-A* da.

fia berria hiztegiaren <A> (eta menturaz) letra idatzi zuenean oraindik guztiz sartu gabe zuela frogatzen digu horrek, gisa horretako gaurkotzeak testuak aurrera egin ahala bakanagoak dira-eta (adibidez, jadanik *SOMIÑAKIN* dator ES-en, 7b-ko adibideetan ez bezala). Erdal grafian ere gaurkotzeak egin dira: ES-en *muger, obillos, congeturar, estension* etab. AR-en *mujer, ovillos, conjeturar* eta *extensión* dira.

- (8) a) ES: *guizonaronz, guizonenzat, baldanzarra, balanzategi*
 b) ES: *abertimendua, abisamendua, adimendua*
 AR: *abertimentua, abisamentua, adimentua*
 c) ES: *sortaldeko aisea, sortabasta, abostukia*²³, *adiarasia*²⁴
 HR: *sortaldeko aizea, sortabazta, abohtukia, adiarazia*

Grafia gaurkotzeez gain, moldaketak ere badira “Hiztegia”-n. Ozen ondoan frikaria idazten du Aizkibelek zenbaitetan, (8a)-ko adibideek erakutsi bezala; denak afrikatuarekin testu inprimatuan. AR-en, ordea, *SORT-ALDERONZ* bezalako salbuespenak ere auki ditzakegu, ES-eko formari eutsi diotenak. Bestalde, ozen ondoan ahostuna dugu eskuizkribuan eta edizioan, ordea, ahoskabea, (8b)-k azaltzen duen gisan. Azken horretan AR-ek bateratzeko joera izan du, ES-en bertan badugulako <t>-dun formarik. Beste alde batetik, “Euskaldunak”-en bezala hiztegian ere, herskari aurreko txistukari zenbait, ES-en apikariak direnak, AR-en bizkarkari dira (8c). Molde berekoa da <ñ> grafemaren auzia: *DIZKINĪ, DIZKINĪALA* dago AR-en, ES-en *DIZKIN* eta *DIZKINĪALA* dauden lekuan, baina paradigma horretan bertan ES-en <ñ>-dun formak agerten hasten dira; horregatik AR-en bateratzera jo dute. Erdarazko zatietan ere aipatzekoak dira gaurkotze/moldaketa batzuk, hala-nola: ES; *substituyendo* edo *fojas* AR; *sustituyendo* eta *hojas*, edo azentuazio kontuak.

2.5. Edukiak

Luze mintzatu gara desberdintasun formalez, baina edukietan ere badira zenbait bariazio eskuizkributik argitalpena; esaldien egituretan kausi daitzkeen aldaketetatik hasi eta desbideratzeetara, gehiketak eta ezabaketak tarteko.

2.5.1. Eskuizkribuaren idatzaldiak eta datazioa


Zuzeneko konparazioan sartu baino lehen, eskuizkribuan nabarmena den baina argitalpenean ezin igarri den kontu bati buruz solastu nahi genuke; idatzaldiez, alegia. Dagoeneko esan dugu eskuizkribua nahiko txukuna dela, ez duela lehen bertsioa irudi; dena dela, behin betikoa ere ez zela frogatu dugu: gogoan izan Aizkibelek berak esaten digula testua behin eta berriz errepasatu nahiko lukeela (§2.2. amaiera aldera). ES begiratuta, berehala igartzen da berrikuste lan horretan hasi, bederen, hasi zela: bi tinta mota oso ongi bereizten dira, bata bestea baino ilunagoa: tinta ilunagoarekin gehiketak egin zaizkio eskuizkribuko lehen idatzaldiari. (9)-ko adibideari erreparatuta aise

²³ HH-n *abohtukia*, apikariarekin.

²⁴ HH-n apikari.

ulergarria da gai hau: alde batetik, lehen idatzaldian Aizkibelek hitzen iturria zein zen esateko parentesi hutsak irudikatu zituen (zeinen artean laburdurak idatzi behar ziren). <P> letraraino bigarren idatzaldian beteta aurkituko ditugu parentesi horiek (laburdurarekin); hortik aurrera hutsik kausituko ditugu²⁵. Horrezaz gain, <G> letratik hasi eta <P>-raino berriz ere, definizio batzuk bigarren tinta horrekin osatu direla nabarmena da. Gainera, eskuizkribuko orriak bigarren idatzaldiko tinta horrekin berarekin agertzen dira zenbatuak, 865. orrialdera arte, hots, <P> letraraino berriro. Nabarmena da, beraz, hiztegiaren bigarren idatzaldi hori <P> letran amaitu zela eta bereziki emankorra izan zela <G> eta <P>-ren artean²⁶. AR eskuizkribu hori baliatuz egin zelako froga definitiboa da honakoa, argitalpenean aztertu dugun eskuizkribuaren bi idatzaldietan (gehiago izan ez badira) jasotako datuekin eta soilik horiekin burutu baitzen.

(9)²⁷



Irudi honetan bi tinten arteko aldea irudikatu nahi dugu. Sarrera-burua, parentesi hutsa eta hirugarren pleka bikoitzerainoko zatia idatzi zen lehenik, eta bigarren aldian gainontzekoa.

Baina idatzaldien kontu horrek eta <C> letrari buruzko disertazioan aipatzen denak zer pentsa ematen digute. Hara zer dioskun Aizkibelek:

...mi diccionario Basco-Español, en cuatro tomos en folio, es buen testimonio de que en aquella época [1831tik aurrera]²⁸ habia adoptado esta reforma [ortografiarena]; pues las cédulas eran casi todas de mi puño para ponerlas en orden alfabética y de ellas copió mi escribiente (con muchos errores, por cierto,) los referidos cuatro tomos, dejando grandes entre-glones²⁹ para añadir las voces que encontrase en la lectura de libros bascongados. (Aizkibel 1883-4: 146).

Pasarte mamitsu bezain ilun horrek analisi motelagoa merezi du, eskuizkribuaren idatzaldi eta datatzeei so. Argi uzten du aztergai dugun eskuizkribua 1831 ondorengoa dela, baina zilegi bekit afera gehiago nahastea:

empecé en Roma el año 1822 mi Diccionario vascuence, castellano y francés que ya lo tengo concluído al cabo de dieciséis años de trabajo [1838an, beraz] en 4 tomos en folio. (*ibid.*, grafia neronek gaurkotua).

²⁵ Salbuespen bakarren batean izan ezik.

²⁶ *Sorta-kija* eta *Sortatu* hitzen artean ere bigarren idatzaldi hori ageri da. <S> letran eta inguru-koetan hutsune handiak daude eskuizkribuan, Aizkibelek sarrera horiek osatzeko asmoa zuela azalean utziz.

²⁷ KMK.

²⁸ Testu berean, apur bat gorago, 1831. urtetik aurrerako garaia buruz mintzo da eta eta horri dagokio oraingo honetan ere.

²⁹ ES-en *entrerenglones*.

Urkixok Aizkibeli egozten dizkio hitzok (1934: 452) eta aditzera ematen duenez, bertan aipatzen den eskuizkribua 1838rako amaitua zuen. Izan liteke hori arestian aipatu dugun “diccionario Basco-Español”-en eskuizkribua, hau ere “en 4 tomos en folio” egina dagoelako³⁰, baina ez ES-en ez AR-en ez da frantsesa inondik ageri, hortaz, ezbairik gabe, frantses ordainak jasotzen dituenak beste eskuizkribu bat behar du izan. Bestalde, Urkixok dio hona ekarri ditugun hitzok 1832koak direla (1934: 450): Aranbarrik (s. d.: 2) eta Garatek (1962: 100) ohartarazi duten bezala, ez da posible hiztegia 1822 baino 16 urte beranduago (1838an alegia) amaitu izanaren erreferentzia ustez 1832ko data duen eskuizkribu batean agertzea³¹. Hiztegia noizko amaitu zuen jakitea, beraz, zail samarra da, baina 30eko hamarkadan izan zela ematen du.

AR-ek eta ES-ek dakarten “Euskaldunak” hitzaurrearen hasieran esaten zaigunez, “mende bat eta amar urte igaro dira gure Aita Larramendik bere itz-tegia (...) eman zigunetik onara”, hartara, kalkuluek zuzenean garamatzate 1855. urtera. Gisa berean, bai AR-ek eta bai ES-ek dakarten erderazko “Prólogo”-n honakoa dator: “Desde el año 1.828 asta ahora (1853)...” (1883-4 “Prólogo” IV). Hori ikusita, gure proposamena honakoa da: hiztegia, esan bezala, 1830-40 aldera idatziko zuen eta frantsesa ere hartuko zuen hasieran. Bestetik, “Euskaldunak” hitzaurrea 1855. urtekoa dela ematen du eta “Prólogo”, aldiz, 1853-koa.

ES-en, baina, AR-en bezala, “Euskaldunak” hitzaurrea, “Prólogo” eta hiztegia bera daude, hurrenkera horretan; hortaz, ES-ek 1855 urtearen –“Prólogo”-aren urtearen– ondoren egindako kopia behar du izan, ordurako frantses aldaera jadanik baztertua zuena.

Horrek guztiak zalantza handi bat pizten du: <C>-ri buruz aipatu disertazioan Aizkibelek dio bere idazkariak hutsuneak utzi zituela gehiketak egiteko. ES-en ere gehiketa horiek daude; beraz, gure periodizazioari euste aldera, pentsatu beharrean gaude hiztegiak izan zituen ondorengo kopieta, ES-ra ailegatu arte, hutsarte horiek gorde egin zirela.

Disertazioaren azken atalak beste duda bat agertzen digu: ES-en kopia-tzailea Aizkibel bera da ala bere idazkaria? esan dezagun, aurrera egin baino lehen, beste tintaz ageri diren beranduagoko gehiketa horiek (cf. 9) lehen idatzaldiko kaligrafia berean eginak daudela eta bi kaligrafiak bat datozela Gómezek –“Euskera” eskuizkribuari buruz mintzo– dakarren faksimilearekin (2008: 364)³². Aizkibelen letra den edo ez ezin dugu guztiz baieztatu baina ES 1855 ondoren kopiatu zela ondorioztatu badugu eta Aizkibel handik urte gutxira hil zela kontuan hartuta, oso litekeena da ordurako kopiatzearen ardurara idazkariak hartu izana.

³⁰ “Tomo” hitzarekin *liburuki* edo “volumen” ulertu nahi dugu, hots, unitate fisiko desberdinak (cf. “tomo” eta “volumen” hitzen arteko desberdintasunendako, Martínez de Sousa 2003: 5).

³¹ Halere, Becerro de Bengoak 1885. urtean dio Aizkibel 1826an hasi zela hiztegia egiten (1885: 482).

³² Gómezen faksimilean hitz amaierako <s> hizkiek beheranzko marra kurbatu berezia dute. ES-en, hitz amaierako <s>-ak gutxi direla kontuan hartu arren, oro har ez da marra hori ageri, nahiz eta adibide bakanen bat baden. Horren trazu berezia izanda, ES-n adibide bakarra aurkitzea aski da bi tes-tuak egile berarenak direla pentsatzeko.

2.5.2. *Desbideratzeak*

Ordena alfabetikoari jarraitzen ez dioten sarrera-buruei lotuz, adibide zenbait bai AS-en bai AR-en topa ditzakegun bezala, beste batzuk batean edo bestean baino ez daude. Horra etsenplu bakan batzuk: *ABITUA* sarrera *ABINARTATZEA* sarreraren ondotik dago ES-en, eta *ABITAZALEA* sarreraren ondoren ezarri da AR-en, hots, dagokion tokian, hurrenkera alfabetikoari so. *ADIZAK* ES-en *ADITZA* eta *ADITZAKOA* sarreraren artean dago eta AR-en *ADIUTZA*-ren ondotik jarrita zuzendu da. *EPPEA*, eskuizkribuan *EPPAITZA* eta *EPPATZEA* sarreraren artean zena, bere lekuan dago AR-en. *SORRE-RA* eta *SORRERIA* kontrako hurrenkeran daude ES-en, besteak beste.

Badira, halere, gaziki zuzendutakoengatik gertatutako desbideratzeak. Adibide gisa, honakoa: *SOSAGATU* eta *SOSAGUA* hurrenkera horretan datoz ES-en. AR-en, irakurketa oker baten ondorioz, *SOSAGATU* sarrera *SOSAGUTU* bilakatu dute, eta jakina, *SOSAGUA* sarreraren ondotik ezarri. Orobat gertatzen da AR-eko *SORAIOTU* eta *SORAI-TASUNA* sarreretan; ordena horretan daude AR-en, baina ES-en kontrakoan, bertan hitza ez delako *SORAI-TASUNA*, *SORAIOTASUNA* baizik. Zuzendu beharreko baina zuzendu gabekorik ere bada: *ABSOLBIZIONEA* ES-en <c>-z idatzia dago eta bere tokian agertzen da; AR-en grafia aldatu, baina tokia gorde diote, desbideratzea gertatuz.

Akats eta desbideratze iturririk nabarmenena, edozein gisaz, <ch> hizkiak eragindakoa da. Aizkibelentzat <ch> hizki osotzat –ez digrafotzat– hartu beharra zen, soinu bakar baten adierazgarri zen aldetik. Are gehiago, alfabetoan <H>-ren ondotik kokatu behar dela uste du (Aizkibel 1883-4: 381). Editoreak, bitxitasun horretaz jabetuta, Aizkibelen nahia errespetatu duela dio: “Nuestros suscritores observarán cierta anomalía en el orden de colocación de la letra Ch; el Editor, por respetar las indicaciones del Autor, la publica en el mismo lugar en que la ha encontrado” (*ibid.*). Eskuizkribua eta argitalpena konparatuta eta azterketa geldoagoa eginda, aise ageri da editoreak ez duela bere hitza osorik bete. Ohartzen bagara, <Ch> letraz hasten diren sarrera-buruak <H>-ren ondoan daude AR-en, Aizkibelek nahi izan zuen bezala, baina beste zeinahi letraz hasitakoak hartuta, hitz barneko <ch>-ak AR-en edo <c>-ren³³ ondoren kokatuak daudela ikusiko dugu, (10) adibideko sarrera-buruen hurrenkerak agertzen duen bezala:

- (10) AR: *Iboil-koia*
Iboila
Ichabalkia
Ichadon

Aizkibelek, ordea, ES-en azken muturreraino darama bere erabakia eta hitz barneko <ch>-ak ere <h>-ren ondotik kokatzen ditu. Hurrenkera berezi hori AR-en irakurleei bilaketak egiteko gaitza irudituko zitzaielakoan edo, ES-en <h>-ren ondoren ziren hitz barneko <ch> guztiak AR-en lekuz aldatu zituzten, <c>-ren ondotik ezartzeko. Horrek, duarik gabe, sarrera-buruen egokitze lan izugarria eskatu ziokeen editoreari eta saiakera horretan ez dira gutxi egin zituen akatsak, baita horietarik eratorritako desbideratzeak ere.

³³ Bakanak dira <c> ondokoak, salbuespen edo akatsak batik-bat. Kontuan har Aizkibelek, bere arau ortografikoei jarraiki, ez duela <c> letra kontuan hartzen.

Ach- hasieradun hitzetan gertatzen dena horren erakusgarri da³⁴. Aizkibelek, <A> letra osatzen ari zenean, oraindik ez du argi, nonbait, <ch> letraren hurrenkeraren auzia nola ebatzi eta kausitzen da ES-en ere berak proposatutako hurrenkeraren kontrako adibiderik. Izan ere, ES-en *Ach-* hasierako sarrea-buru batzuk <c>-ren ondotik ezarri zituen, ez <h>-ren ondotik (cf. 11). 1. sorta deituko dugu hori.

- (11) ES: *Acu* eta *Adaburua* sarreraren artean: *Acha*, *Achada*, *Achadia*, *Achadiarra*, *Achadikoa*, *Achaga*, *Achagoitia*, *Achabeitia*³⁵, *Achandia*, *Achaurrea*, *Achondo*, *Achotegi*, *Achoa*³⁶, *Achotorena*, *Achozarra*

Gero, <g>-ren ondotik³⁷, berriz ere *Acha*-tik aurrera hasten da hitzak gehitzen (2. sorta), hau da, jarraitu nahi duen ordena berriari dagokion tokian, *ach-* guztiak amaitu arte. Horien artean, 1. sortan (hots, 11-ko adibidean) ere sartutako batzuk errepikatzen ditu: akatsa dago, beraz, ES-en. Nola ekin zaio horri AR-en? ES-en <c> ondoren gehitutako 1. sortako hitz horiek AR-en ere modu horretan agertzen dira; zuzen, editorearen irizpidearen (baina ez Aizkibelenaren) arabera, AR-en <ch>-dun hitzak <c> ondotik kokatu nahi dituztela kontuan izanik, esan dugun bezala, AR-en irakurleei bilaketak errazteko edo. Baina AR-en akatsa larriagoa da. Eskuizkributik zuzenean kopiatzen hasita, (11)-ko 1. sorta hori ES-n ageri den leku berean dago; beraz, *ACHOZARRA* sarreraren ondotik, *ADABURUA* dator *ad-* hasierako hitzak hasteko. *Ad-* hasierako hitzak sei baino ez dira (cf. 12) eta gero berriz ere hasten dira *ach-* hasierako sarrera-buruak (2. sorta). 2. sorta horretan *ache-* hitzetik amaierarakoak jasotzen dira AR-en. (11) adibideari begirata, ikus daiteke 1. sortan sartuak zituztela *acho-* hasierako pare bat hitz, 2. sorta honetan errepikatu dituztenak, kanpoan utziz, hala ere, ES-en 2. sortan dauden *acha-* hasierako hitzak. Gainera, AR-en 1. eta 2. sorta bereizten zituzten *ADABURUA* hitzetik *ADABURUTZEA*-ra bitarteko sei hitz horiek (cf. 12) berriz sartu dituzte, *ad-* hasierako hitzak hastean.

- (12) AR: *Adaburua*, *Adaburutsua*, *Adaburutu*, *Adaburutua*, *Adaburutzea*

Labur esanda, ES-en *ach-* hasierako bi sorta daude: 1. sorta (cf. 11) *Ac-* hasierako sarrera-buruaren ondotik dator, gero *ad-* hasierako hitzekin hasiz; 2. sorta, aldiz, *ag-*ekoen ondotik sartu dute, 2. sorta horretan 1. sortako hitz batzuk errepikaturik ageri direlarik. AR-en, ordea, 1. sorta ES-en bezala ageri da eta gero, eskuizkribuari jarraituz, *ad-* hizkia kopiatzen hasi dira. ES-en *ag-*en ondotik *ach-* hasierako sarrera gehiago daudela ikusita, *ad-* hitzen kopiatzea eten dute, soilik sei hitz kopiatuz (cf. 12), gero berriz *ach-* hasierako zereendarekin jarraitzeko (2. sorta).

Egindako nahaste hori izan zen, segur aski, editorea <A> letraren bigarren argitalpen bat egitera bultzatu huena (§4): horretan, errepikaturik zeuden hitzak kendu eta ES-en 2. sortan agertzen diren baina AR-enean saihestu ziren *acha-* hasierako hitzak gehitu dira, denak <c> letraren ondotik, jakina. Bide

³⁴ Oso zaila da azaltzen eta komeni da AR bederen aurrean izatea azalpenak behar bezala ulertzeko.

³⁵ Ohar bedi irakurlea hitz honen desbideratzeaz. AR-ere ere hala dago, segur aski aurreko sarre-rarekiko (*ACHAGOITIA*) antonimotasuna agertzeko.

³⁶ Desbideratzea zuzendu gabe dago AR-en ere.

batez, beste desbideratze batzuk ere zuzendu dira (*ABUINDULLEA ABUINDUTZEA*-ren aurretik ezartzea, esaterako) eta gero aipatuko dugun akats berriren bat ere egin.

2.5.3. *Laburdurak*

Cuberok bere lanean esaten digun gisan, “*Itztegia*-ren hasierako zerrendan azaltzen den zenbait laburdura ez da hor ageri bezala azaltzen ondorengo testuan” (Cubero, s.d.: 9). Horri ekin baino lehen, aipatzekoa da AR-en hasierako laburduren zerrenda AR-ekoa dela bakarrik, hau da, ez dela ES-en kausitzerik³⁸. Horrek erakusten digu editoreak ES-en azaltzen diren laburdurak bildu eta berdintzeko lana egin duela. Ikus dezagun: *Hiztegi Hirukoitza* aipatzeko “D.T.”³⁹ laburdura erabiltzen da bai AR-en bai ES-en oro har, baina bigarren horretan zenbaitetan “D” edo “Dic. Tri.”. AR-erako laburdura oro berdindu da. Dena dela, editoreak ez ditu, antza, dauden laburdura guztiak laburduren zerrendan bildu (Sarasola 2002: 615). Adibide gisa, besteak beste, Etxeberri Ziburukoa dakar Sarasolak⁴⁰. Bestelako duda bat ere agertzen du: “Bada laburdura bat bederen, LARR –esaterako “laburrena (Larr. I. XXXVII) El más corto”– Larregiri ez bide dagokiona eta inondik ere antzematen ez diodana” (2002: 615). AR-eko laburduren zerrendan “Lgi” da Larregirentzako laburdura eta, dudarik gabe, adibide gisa ekarritako sarreran “Larr” erabili izana editorearen hutsa da, ES-en begiratuta, sarrera horretan “Lgi.” laburdura baitator, AR-eko “Larr” Larregiri dagokiola konfirmatuz. Beste batzuetan, berdindu gabe, AR-en Aizkibelen laburdura zuzen-zuzenean kopiatu da, editoreak berak laburduren zerrendan hautatutakoa erabili gabe. Cubero berak dakar adibidea (s. d. 9): laburduren taulan egokitu zaion “P”-ren orde, “plur.” dator hiztegiaren mamian plurala markatzeko. Gehitu dezagun, “plur.” laburdura dela ES-ek dakarrena; beraz, editoreak kopiatze hutsa egin du, bere irizpideak alde batera utziz. Inprenta hutsak ere badira: Sarasolak berak dakar askotan “CHON” agertzen dela AR-en, “CHOU” adierazi nahi izan denean, “Chourio”, alegia (Sarasola 2002: 615). ES-en <u> eta <n> antzekoak baitira, editoreak gaizki bereizi ditu.

Baina badira arazo larriagoak laburdurekin. Ezaguna zaigu jada Aizkibelentzako hiztegia ez zegoela argitaratzeko moduan (§2.2). Horren froga nabarmena da, askotan, laburdura ezartzeko espazioa utzia zuela, baina ez zuela laburdura orduan idatzi.

³⁷ Gogoan izan berez <ch> hizkia <h>-ren ondotik doala, baina ez dago hitz barmeko <h>-rik Aizkibelen grafian: horregatik agertzen dira <ch>-dun hitzak <g>-ren ondotik; <h>-ren aurreko hizkia <g> delako hurrenkera alfabetikoan.

³⁸ Hori frogatzeko beste argudio bat: laburduren zerrendan “Humb: Humboldt” agertzen da, baina Aizkibelek “Humboldt” idazten zuen beti, amaierako *-t* gabe (Hiztegiaren gain, adibidez, baita bere bibliografian ere. Cf. Garmendia 1994: 498). Are gehiago, hizkuntzalari alemaniarraren izena edizioan bertan aipatzen denean, jatorrizko grafia errespetatu dute eta *-t* gabe idatzi; beraz, bistan da zerrenda hori ez zuela Aizkibelek egin.

³⁹ Alegia, *Diccionario Trilingüe*.

⁴⁰ Zeinahi gisaz, Sarasolak Etxeberri Ziburukoaren sarreratzat dakarren adibide bat, *berina*, ez AR-en ez ES-en ez zaio Etxeberri egozten, *HH*-ri baizik.

(13)⁴¹

Sorbetca. () Sorbete para bebidas.

ES-eko adibide honetan hutsartea utzi zuten geroago zegokion laburdura idazteko.

Hori batez ere amaiera aldera gertatzen da, <P> letra amaitu bezain laster. Gure laginean bederen, editoreak parentesi hutsak dituzten sarreretan “D.T.” laburdura gehitu du sistematikoki, ES-en egon ez arren. <N> letrari dagozkion lagineko adibideetan ez du editoreak hala jokatu eta laburdurarik ez du eman, hitzok *HH*-n agertzen badira ere, “*NEUR-GOITIA*: Dioptra (*sic* AR-en)” kasu. Hala ere, gure lagineko (<S> letrako) hitz laburduragabe zenbait *HH*-n zeuden konprobatu dugu eta hala da; hartara, ematen du falta ziren laburdurak ez direla modu arbitrarioan ezarri, egiazki *HH*-n ageri direla, nahiz eta akatsak badauden: esate baterako, *ZUHURES-BAGEA* AR-ek Pouvreauri egotzen dion bitartean, ES-en parentesia hutsik dago. Gisa horretan, Sarasolarekin bat gatoz, ES ediziorako prestatzean, ez editoreak ez zuzentzaileak ez zituela sarrerak jatorrizko iturrietan sistematikoki egiaztatu (2002: 617), baina *HH* aurrean izan zutela pentsatzekoa da. Kontrako fenomenoaren adibideak ere badaude: ES-en “Dic. tri.” laburdura duen zenbait azpisarrerak AR-en ez du horrelakorik, *BARBILDUA* edo *BALDA*-k adibidez. Edo *DITU* aditzaren paradigmatik, ES-en “G”, “L” edo “V” laburdurak ditu, hots, *gipuzkera*, *lapurtera* edo *bizkaiera*, baina AR-en saihestu dira horrelako zehaztasunak. Berdin gertatzen da *CHANJA* eta *CHANJATU* hitzetan, “G” laburdura baitute ES-en, AR-en ez bezala.

Sarasolak erakutsi duenez, AR-en *HH*-ri egotzi zaizkion hainbat hitz ez daude bertan, eta alderantziz; AR-en marka hori ez duten hitz asko *HH*-koak dira (2002: 616). Guk esan dezakegun gauza bakarra, Sarasolak hori frogatzeko ekarri dituen AR-eko adibideak ES-en ere gertatzen direla da, hots, ezaugarri hori Aizkibelena berarena dela eta ez editorearena. Editoreak falta ziren laburdurak *HH*-n zeuden begiratu izan zuela esan badugu ere, jatorriz Larramendiren erreferentzia zutenak edo bestelako laburdura zekartenak ez zituen egiaztatu.

Horiez gain, argitalpenean maskulino eta femeninoari dagozkien laburdurak “h” eta “m” dira hurrenez hurren, <D> letran topatu ditugun adibideetan. <N> letrako aditz paradigmatik eta laburduren taulan, aldiz, “m” eta “f” darabiltza. Eskuizkribua koherentea da beti eta azken biak erabiltzen ditu. Hori horrela, editoreak gaztelaniazko izenak (*hombre* eta *mujer*) hobetsi zituen hasieran, nahiz eta gero ES-ekoak nahiago izan. Horrek pentsaraz diezaguke, espero bezala, laburduren zerrenda hiztegia amaitu zenean egin zela, jada ES-eko sistema onartu zenean, hain zuzen⁴².

Badira, amaitzeko, kopiatze akatsak ere bai: *NEURRI-ERA-GO* sarreran “D.T.” dago AR-en baina Aizkibelek ES-en “Der” idatzi du. Hala ere, hitza *HH*-n ageri da, beraz, baliteke editoreak hitzok *HHH*-n zeuden edo ez begiratu izana.

⁴¹ KMK.

⁴² Aurrerago ikusiko dugunez (cf. 57. oin-oharra), laburduren zerrendaren kokalekuak edo horren faltak hainbat aletan, horren alde egiten du.

2.5.4. *Gehiketak, ezabaketak, moldaketak eta zuzenketak*

Edukian ere bada gehiketa, ezabaketa edo moldaketarik. Batzuk zuzenketak dira, baina beste batzuk estilo kontuak edo justifikazio argirik gabekoak. ES-en ez dauden sarrera eta hitz batzuk AR-en azaltzen dira: *ABOKATU* sarreraren arrastorik, esaterako, ez dago ES-en; horrezaz gain, definizio batzuk osatu dira: *ABIJA CHIKIYAC*⁴³ sarrera, adibidez, hutsik dago ES-en, baina AR-en definizioa gehitu zaio.

Berezia da *CHANGARRIA* hitzaren sarrera:

(14) AR: CHANGARRIA (D. T.) Aparadero, examen, prueba á *que se sujeta la bondad ó malicia de una persona ó cosa* (etzana gurea).

ES: Changarria (D. T.) Aparadero, examen, prueba con que se [...]ica la realidad de una cosa.

Aski irakurgaitza da ES-eko letra pasarte horretan: edizioa prestatzean egiazki zer jartzen duen ezin izan zutenez jakin, antzekoa baina eurek asma-tua den definizioa sartu dutela uste dugu, *HH*-n ez baitugu horren arrastorik aurkitu. Horrek beste behin erakusten du, dudarik ez dagoela AR prestatzeko oinarrian eskuizkribu hori izan zutela eta ez besterik⁴⁴, ES-en baino ez baitateke sarrera hori irakurgaitz. Zuzendu egin dute, halaber, *HARITZA* sarreraren definizioa, ES-en *encina* ematen baita eta AR-en *roble*.

Baina, oro har, ezabaketak dira ES-etik AR-era igarotzean gehien aurkitzen direnak. ES-en badiren sarrera zenbait AR-en kendu dira. AR-en ez daude, konparazione, *ABERASTU*, *ABOKATZE*, *BALDAILCHOA*, *HARDOA*⁴⁵, *SORABURU*, *SORBAN*, *SORNOZA* edo *SORNOZTEGI* sarrerak. Gainera definizioetan pasarte batzuk saihestu dira.

(15) a) AR: SORR-EGIN (D. T.) Hechizar, encantar, embelesar.

ES: Sorregin. () Hechizar, encantar, embelesar. || Contraer una deuda.

b) AR: SORT-ALDEKA (D. T.) Oriental. SORTALDEKO AIZEA. Subsolano, viento que viene del Oriente; equinoccial, el viento Este.

ES: Sortaldekoa (D.Tr.) Oriental || Sortaldeko aisea. Subsolano, viento que viene del oriente equinoccial, contrario al Javonio; el viento Este.

HH: Sub|olano, |ortaldeco aicea. Lat. Sub|olanus.

Esate baterako, *SORR-EGIN* sarreran (cf. 15a), AR-en datorren definizioaz gain, *contraer una deuda* ere bada ES-en, AR-en agertzen ez den bitartean. AR-en *HH*-tik hartua dela zuzen gehitu dute, baina ES-eko azalpen gehigarria kendu dute, *HH*-n ez baita ageri: Ezingo liokete, menturaz, (D. T.) laburdura gehitu, bertan agertzen ez den azalpen gehigarria atxiki izan balute. *SORT-ALDEKA* sarreran (cf. 15b)⁴⁶, ES-en “contrario al Javonio” ere gehitzen da, AR-en ez bezala. Gure iritziz, elisio hauek ongi ulertu ez zituzten pasarte eta hitzekin edo osatu gabe zeuden sarrerekin egin zituen editoreak, edo ustez tokiz kanpo zeuden definizioekin. Baliteke, gisa berean, Aizkibelek ES-en *HH*-kotzat emanda-

⁴³ Bide batez, grafia gaurkotzea ahanzi dute.

⁴⁴ Julio Urkixok ere hala uste zuen (Garate 1962: 88).

⁴⁵ ES-en honen sarrera eta laburdura (“Ohi.”) ageri dira, baina definizio edo ordainik ez; segur aski horregatik saihestu dute.

⁴⁶ Bekus irakurleak huts bat dagoela, ES-en *SORTALDEKOA* baitugu.

ko definizio batzuk, bertan egiazki agertzen ez direnean, editoreak kendu izana; izan ere, AR-en falta den “contrario al Javonio” ez dago Larramendirenean, (15b) adibidearen hondarrean ikus dezakegunez.

Moldaketak ere badira, gaztelaniazko testuan batez ere: *alguna* vs. *algo*; *líquido* vs. *líquidos* eta horrelako txikikeriak. <C> letrari buruzko disertazioan (Aizkibel 1883-4: 145-6) ugariak dira estilo arrazoiak direla-eta egindako horrelako moldaketak.


Sarasolak dio zaila dela jakiten hutsetatik zein egotzi behar zaion editoreari eta zein autoreari (2002: 616). ES konprobatzeko aukera izanda, zailtasun hori gainditzen erraza dela deritzogu. Sarasolak Aizkibelen akastzat dituenen artean honako sarrerak aipatzen ditu: *AAITESA* (D. T.), *AAITESGARRIA* (L.), *AAITESGARRIRO* (L.), *AAITESTU* (L.), *AAITESTUA* (L.), etab. Sarrera horiek ES-en ere horrela agertzen direla baieztatuta, Sarasolak aurkikuntza interesgarria dakar; izan ere, *AAITESA*-ren arrastorik ez omen dago *HH*-n, bai ordea, *ADITEZGARRIA* edo *ADITEZGARRIRO*. Horrek erakusten du Aizkibelek, hasteko, <d>-ak <a> bihurtu zituela⁴⁷ eta gainera laburdurak ezartzerako orduan ez zela zorrotzegia izan. Are gehiago, bederen *HH*-n jasotako hitzetatik eratorri propioak ere egin zituen.

AR-en *ZUZ-LEA* (IZT MS.) dator, Iztuetaren *SUSMEA* behar lukeena; akatsa izanik ere, hiztegian dagokion ordena alfabetikoan heldu da, <Z> hizkian hain zuzen:

(16) AR: ZUZKITU-AGO, ZUZ-LEA, ZUZMURRA, ZUZPERTU.

ES-en begiratuta ordea, *Zuzkituago* sarreraren ondotik *Zuzpeltu* dator: *ZUZ-LEA*-ren arrastorik ez dago, baina *Zuzmea* eta *Zuzmurra* ES-en <Z> hizkiaren amaieran agertzen dira, lekutik kanpo, eranskin moduan (cf. 17). Editoreak horiek bere lekuan sartu zituen, baina huts tipografiko batekin⁴⁸. Akatsa ez da, beraz, Aizkibelena guztiz: egia da apikariak bizkarkari kopiatu zituela, baina huts tipografikoa editorearena da.

(17)⁴⁹



⁴⁷ Hiztegi inprimatu batean <a> eta <d> letrak okertzea zaila da. Horrek pentsarazten digu sarre-rak fitxetan eskuz kopiatuak zituela Aizkibelek eta horiek alfabetikoki antolatzean gertatu zela akatsa. Bestalde, akats horrek fitxen antolatzea eta kopiatzea, ez Aizkibelek, baizik eta idazkariak ez ote zuen egin susmoa berpiztu digu (cf. §2.5.1).

⁴⁸ Huts horrek ezin zuen desbideratze iturri izan, *ZUZ-LEA* zein *ZUZ-MEA* idatzi, sarrera horri leku bera bailegokioke.

⁴⁹ KMK.

AR-en badiren eta ES-en kausitzen ez diren huts tipografiko gehiago dakartzagu (cf. 18). Inprenta arazoak dira, AR-en desbideratzeak sortzen dituztelako: *MEURRIA* konparazione, <N> hizkian dago kokatua, *NEURRA-GAIA* eta *NEURRI-BAGA-ANGO* sarreraren artean, hots, <n> hizkiaz zuzen idatzia egon izan balitz bezala.

(18)

AR	ES
Dioptra	Dioptria
MEURRIA	Neurria
NAUR-KAIZTUA-GO	Neurkaiztuago
ZUKARRA	Zuharra
ZUAZKITU	Zuazkion

Edukiez mintzatzen bukatzeko, aipa dezagun “Euskaldunak” hitzaurrean ere halakoak badirela. ES-eko huts batzuk AR-en zuzendurik ageri diren bezala (cf. 19a), kontrako bidetik, ES-en zuzenak direnak moldaturik edo oker daude AR-en (19b).

(19) a)

AR	ES
<i>Sajoniako</i>	<i>Sajoxoniako</i>
<i>aurbende</i>	<i>aurbendende</i>
<i>zaitirauntzen</i>	<i>zaitirautzen</i>

b)

ES	AR
<i>Geroago</i>	<i>Gerogo</i>
<i>Nastegabeago</i>	<i>Nastegabeago</i>
<i>Onekoa</i>	<i>Onchoa</i> ⁵⁰
<i>Piska</i>	<i>Puska</i>
<i>Neronek bakarrik dauzkat</i>	<i>Neronek dauzkat</i>

2.6. “Prólogo”-aren informazio baliagarria

Gaztelaniazko “Prólogo”-ak (PR hemendik aurrera) argigarria den zerbait frogatzen du. Bertan, gaztelaniaz idatzita egonik ere, ohiko puntuazio aldaketak eta grafia gaurkotzeak daude. Paradoxikoa badirudi ere, gaztelaniazko zati horretan, hain zuzen ere, froga daiteke inprentako langileak ez

⁵⁰ Hemen, dudarik gabe, ES-ko <ek> bilkura gaizki irakurri dute, eskuz antzekoa den <ch>-rekin nahasiz.

zekikeela euskaraz, edo ez zela aski alfabetatua Aizkibelen euskararen inguruko proposamenak ulertzeko. Ezjakintasun hori PR-ren plantxak inprimategian atondu zituenak edo zuzentzaileak izan zezakeen; dudarik ez da editoreak edo beste norbaitek egokitze lan sakona egin zuela eskuizkributik argitalpenerako jauzi horretan (aipatu dugun morfema banaketa, zuzenketa zenbait, etab.) eta horretarako euskararen gaineko ezagutza pizar bat behar da: horregatik, duda izpirik gabe, ez dira pertsona bera moldaketak egin dituenak eta PR-ko plantxen atontzailea edo zuzentzailea. Langile honi egotziko zioten erdarazko testua inprentarako prestatzea, segur aski hizkuntza hori baino ez zuelako menperatzen edo etxeko euskara baizik ez zekielako: ezagutza gabezia horren adibideak ematera heldu gara segituan. Ikus ditzagun alde zenbait:

- (20) a) ES: “se llaman en latín litterae”
 AR: “se llaman *litterah*”
 b) ES: ΑΙΤΟΣ ἢ, ὄν
 AR: “ΑΙΤΟΣ, ú, ó v”

(20a) adibideari so, begibistakoak dira desberdintasunak: alde batetik AR-en “en latín” hitzak falta dira eta bestetik, inprentako langileak ez zekien latinik nonbait eta, bistan dena, ez zuen “litterae” hitza ulertu, “literah” hobetsita, eskuizkribua gaizki irakurtzearen ondorioz hain segur.

Bestetik, grekerazko tipoak izan ez, eta plantxetan latinoak ezarri behar izan zituela irtenbide sinesgarria da (20b)-ri begiratuta: ES-en grekerazko Αἴτος ‘leuna, suabea’ dugu, nominatibo maskulino, femenino eta neutroko desinentziekin (-ός, -ή, -όν), AR-en aitzitik, bestelako zerbait. Maltzur jarriz gero, inprentakoaren ezjakintasunari lepora geniezaioke akatsa, ez tipo faltari. Pentsa daiteke langileak ez zuela orduan jakin karaktere grekoak zirela horiek eta ikusi zuena kopiatzen saiatu zela, interpretazio okerra eginez: desinentziak ikusi beharrean aurkaritza juntagailua ikusi zukeen (ó = ‘edo’), horrelako zerbait ulertuz: “Aitos u *edo* v”; bestela ezin esplikatu liteke, <ó> eta <v>-ren arteko espazioa.

Baina gehien interesatzen zaiguna, inprentako tipografoak euskara (asko) ez zekiela frogatzea da, izan ere, akats larriak daude euskal hitzetan. Aizkibelek bustidurak adierazteko goian edo azpian marra gehitzeko aholkatzen du (1883: “Prólogo” VII), eta adibideak eman: *oña, oña, ttipia* edo *aserre* hobesten ditu, *oína, ollua, ttipia* eta *asserre* hitzen kaltetan. AR-en aldiz, *olua eta aserre* ditugu –diakritikorik gabe– grafia gaurkotuaren adibide eta *otlua* ordea, *ollua*-ren lekuan, grafia zaharraren erakusgarri, hitzok ongi ulertzen ez zituela bistara ekarriz, akatsok AR-en adibideak eta oro har azalpena ongi uler dadin oztopatzen baitute. Bestelako irakurketa okerrak ere badaude: hitza ulertu ez izanaren frogatzat *aipkamena* dago ES-eko *alpha-menaren* orde, edo *aisamena*, ese luzearekin, Aizkibelek farrunt bat idatzi zuen lekuan.

Argudio horiek guztiak Villasanteren hitzen aurka doaz: Garatek dio (1962: 88), Villasanteren hitzak errepikatuz, Gregorio Arruek zuzendu zituela inprenta probak, baina hori horrela bada, erakutsi ditugun hutsek apaizaren axolagabekeria edo zorrotzasun eza baino ez dute bermatzen.

3. HIZTEGIAK ZENBAT FASZIKULU IZAN ZITUEN?

Esan dugu dagoeneko (cf. §1) hiztegia faszikuluka igorri zitzaiea harpidedunei. Amaieran, faszikulu horiek guztiak enkoadernatzeko ordua ailegatu zenean, aiez ale desberdintasun nabarmenak gertatu zirela kaustu dugu. Lehenik eta behin faszikulu bakoitzaren edukiak eta kopurua argituko ditugu eta gero aiez ale antzeman ditugun desberdintasunez arituko gara.

Garai hartako aldizkariak emandako datuak oso argigarriak dira; Iturralde y Suitek hala zioen:

[Aizkibelen hiztegia] se pública [*sic*] en cuadernos de 8 entregas, siendo el precio de cada uno de aquellos una peseta. El diccionario constará de 25 ó 30 cuadernos (Iturralde y Suit 1882: 349).

Hori ikusirik, faszikuluka atera zela nabarmena da. Koaderno edo faszikulu horietako bakoitzaren edukiak kalkulatzera erraza da, *Euskal-Erria* aldizkariak eta harpidedunei eman zitzaien prospektuak zehazten baitu:

El Diccionario Basco-Español se publicará por cuadernos de ocho entregas los días 1º y 15 de cada mes, formando cada cuaderno 32 páginas en folio, o sean, 64 columnas de texto. (...) la entrega de ocho columnas en folio solo costará medio real (Izengabea 1882: 224. Grafia gaurkotua).

Beraz, Iturralde y Suitek eta *Euskal-Erria* aldizkariak aipatzen duten “entrega” hitzak plegu erdiari egiten dio erreferentzia. AR-en orrien tamaina foliokoa dela kontuan izanik, hots, plegu laurdenekoa, plegu bakoitzak lau orri ditu; zortzi orrialde. Orrialde bakoitzak bi testu zutabe dituenaz, plegu bakoitzak 16 testu zutabe ditu (eta entregak 8). Koaderno bakoitzak zortzi “entrega” baditu, hau da, lau plegu, 32 orrialde izanen ditu koadernoak osotara; 64 testu zutabe. Prezioaren aldetiko kalkuluek ere ondorio berberera garamatzate: entregak erreal erdia balio badu, pleguak erreal bat. Erreal pezeta laurdena dela kontuan izanik, 4 pleguk, hots, koadernoak, pezeta bateko kostua izanen du; 4 erreal⁵¹.

$$(21) \quad \text{Koaderno bat} \left\{ \begin{array}{l} 4 \text{ plegu} \\ 8 \text{ entrega} \\ 16 \text{ orri} \\ 32 \text{ orrialde} \\ 64 \text{ testu zutabe} \end{array} \right.$$

Kalkulu horiek bermatzeko hainbat datu ditugu. Esaterako, honakoa dio *Real Academia Española* hiztegiari emandako oniritziak:

La Real Academia Española ha examinado con la debida atención el prospecto, el prólogo y los cinco cuadernos del DICCIONARIO BASCO-ESPAÑOL compuesto por D. J. Francisco de Aizquibel, cuyos cuadernos se extienden hasta la página 140 y comprenden desde el artículo *A, El, Ella*,

⁵¹ Kontstatatu dugun hiztegiaren ale batek, *Bou2* aleak hain zuzen (cf. I Eranskina), bi koaderno-jatorrizko estalkiak gorde ditu eta bertan konfirmatzen zaigu koaderno bakoitza 4 errealen truke (= pezeta bat) zegoela salgai.

hasta el sustantivo BURNI BRAZKIA⁵². (Aizkibel, 1883-4: “Dictamen de la Real Academia Española”. Letra lodia gurea).

Bestalde, *Euskal-Erria* aldizkariak argitalpenaren jarraipena egin zuen eta horrek obraren kronologia finkatzen lagundu digu.

(22)

DATA ⁵³	GERTAKARIA
1882	Hiztegia publikatzeko diputazioaren baimena apirilaren 13an.
1882/06/10	Adolfo Morales de los Ríosi kromoa egiteko enkargua egin zaio. Bartzelonan inprimatuko da. Hiztegia inprimatzen laster hasiko dira.
1882	Lópezek prest du materiala eta laster jasoko ditu inprentarako tipoak. Ekainean hasi nahi du inprimatzen.
1882/09/30	1. koadernoak argitaratu da. Honakoa dakar: Argitalpenaren berria, portadak, editorearen eskaintza, Aizkibel eta Antiaren sarrera euskaraz, “Prólogo” + ortografiari buruzko xehetasunak eta hiztegiaren zati bat: <i>A>Aingurak-goratu</i> .
1882/10/30	2. koadernoak argitaratu da. Hiztegia: <i>Aingurak bota>Arpeztua</i>
1882/11/10	3. koadernoak argitaratu da. Hiztegia: <i>Arpez-tuna>Baitan</i> . A letrak 72 orrialde hartu ditu.
1883	5, 6 eta 7. koadernoak argitaratu dira.
1883/03/10	<i>Academiak</i> oniritzia eman zion hiztegiari 1883ko urtarrilaren 5ean.
1883/04/20	13. koadernoak argitaratu da.
1883/04/30	Lópezek hiztegiaren amaieran eranskin batzuk argitaratuko ditu.
1883/08/20	20. koadernoak argitaratu da. Hiztegia: <i>Lanaga>Leor-kiroa-go</i> . Kromoa ere banatu zaie harpidedunei.
1883/11/20	Lópezek eranskinak argitaratzeko baimena eskatu du. 4 edo 6 koaderno gehiago izanen dira.
1884/02/29	Argitalpena amaitu da. Laster osatuko da eranskinekin.
1884/03/20	Londresen egindako portadak ikusteko aukera izan dute aldizkarikoek.
1884/06/10	Ordurako argitalpena guztiz amaitua dago.
1884/07/10	Hiztegia amaiturik dago, 41 entregatan ⁵⁴ .

⁵² Eskerrak ez ziren *Academiakoak*, hiztegiari oniritzia emateko birpasa egiten ari zirenean, <C> letraraino ailegatu, bertan egurra banatzen baitzaie: “La Academia mira tal vez con alto desprecio [etimologikiak] sólo por la razón de que no las entiende” edo “El alfabeto castellano es sumamente defectuoso y es muy extraño que la Academia Española no haya tratado de expurgarlo” (Aizkibel 1883-4: 143).

⁵³ Data hauek *Euskal-Erria* agerkarian berria noiz azaldu zen dioskute; ez zuzenean koadernoak noiz argitaratu zen. Gogoan har koadernoak hil bakoitzaren 1. eta 15. egunean ateratzen zirela.

⁵⁴ Kasu honetan nabarmena da “entrega” koadernoren sinonimotzat hartu behar dugula.

Akademiak emandako xehetasunak eta kronologia honetan koadernoen edukiei buruz ditugun datuak bat datoz koaderno bakoitzari buruz atera ditugun kalkuluekin (cf. 21).

4. HIZTEGIAREN ALEEN ARTEKO ALDEAK

Gaur egun Aizkibilen hiztegiaren ale mordo bat gordetzen da liburutegi publiko zein pribatuetan, argitaratu zenean izan zuen arrakastaren erakusgarri. Horri esker, ale zenbait ikusteko aukera izan dugu, horien artean aldea badela agerian geratuz. Desberdintasun horien zergatia argitzeko asmotan, 48 ale aztertu ditugu, horietan sistematikoki hainbat elementu erkatuta⁵⁵. Ikusi horiek I Eranskinean.

Ale horietako bakoitzean elementu batzuk aztertu ditugu. Lehenik eta behin, esan dezagun ale guztiak tipografia desberdina dutela <A> letrako izenburutxoetan eta gainerako letretan (cf. 23). Ezezagun zaigun arrazoiren batek aldaketa hori egitera behartu zuen editorea.


(23)

A B O B A R

<A> letraren eta gainontzeko letren izenburutxoaren tipografia desberdina da

Gainontzean, alerik ale desberdintasunak daude. Batzuk liburuki batean enkoadernatuak dauden bitartean, beste batzuk bitan ditugu. Argitalpen horien estalki batzuk jatorrizkoak dira eta besteak arras desberdinak; jatorrizkoen artean, estalkia berde, urdin edo gorria izan daiteke eta filigranak urre kolorekoak, beltz zein grisak, edo biak batera.

(24)



Estalkia, azal txikia eta azala.

⁵⁵ Zinez mila esker liburutegietako liburuizainei emandako laguntzagatik eta bereziki Donostiako Udal Liburutegiko Arantza Albisturri. Eskerrak, halaber, Bilboko Astarloa eta Boulandier liburudendetako arduradunei, nire aurrekontua liburua erosteko adinakoa ez zela jakin arren, aleak begiratzen eta oharrak hartzen nahi beste denbora egoten utzi zidatelako.

Hiztegiek azal txikia dute. Bertan hiztegiaren izenburua eta edizio zenbakia aipatzen dira (lehen edo bigarrena, hain zuzen). Azal txikian agertzen den autorearen izena, ale batzuetan gaztelaniaren grafian (*Aizquibel*) eta beste batzuetan euskal grafian (*Aizkibel*) dago idatzia.

Azalak, bestalde, hiru motatakoak aurkitu ditugu:

(25)



Azal motak: lehenari A deituko diogu, bigarrenari B eta hirugarrenari C.

A azalak ez du datarik eta egilearen izena erdal grafian du; B eta C azalek euskal grafian dute egilearen izena, baina lehenak 1884-ko data du eta C-k 1883-koa, “segunda edición” aipamenarekin.

Horretaz gain, hiztegiaren aurretik datozen testuak (“Euskaldunak” hitzaurrea, Lópezen eskaintza Gipuzkoari, kromoa, kromoaren deskribapena, “Prólogo”-a eta laburduren zerrenda) ez dira beti ordena berean ageri. Gainera, “Euskaldunak” hitzaurrearen eta eskaintzaren izenburuek bi tipografia mota izan ditzakete (cf. 26) eta “Prólogo”-aren barnean datorren “Razones para el cambio de ortografía en la lengua bascongada” izenburua eta testua bereizten dituen filetea gorria edo beltza izan daiteke.

(26) a)

EUSKALDUNAK.

b)

EUSKALDUNAK.

Azkenik, <A> letrako desbideratze batzuk ale zenbaitetan (eta eskuizkribuan) agertzen diren bitartean, beste batzuetan zuzenduak daude. Ale inprimatu batzuek baino ez dituzten desbideratze horietarik bakarra hartu dugu denen erakusgarri; *ABIURKIDA* eta *ABIURKIGILLEA* sarrerei dagokiena, hain zuzen (cf. 27).

(27)⁵⁶

ABIURKIDA Torcedor.

ABIURKIGILLEA (D. T.) Torcedor.

ABIURKIGILLEA (D. T.) Torcedor.

ABIURKIDA. Torcedor.

Eskuizkribuan desbideratzea dago, <g> <d> baino lehenago ageri baita, hurrenkera alfabetikoa hautsiz. Argitalpen batzuetan hutsa zuzendua dagoen bitartean, beste batzuetan ez.

Aipatu berrogeita zortzi aleen arteko alde horiek guztiak II Eranskineko taulan jaso ditugu. Lehenik aleari egokitu diogun laburdura dator, ondoren estalkiaren kolorea eta liburuki kopurua. Behin hiztegia zabaldua, azal txikiak dakarren edizio zenbakia (1. edo 2.) eta egilearen izena euskal grafian (EU) edo gaztelaniazkoan (GA) datorren ezarri dugu. Aurkitu ditugun hiru azal motetatik zein datorren (A, B edo C) ezarri dugu gero, horri jarraiki edizio zenbakia eta data ezarriz, azalak informazio hori ematen duen kasuetan. Alderdi tipografikoan sartuta, Gipuzkoari egindako eskaintzaren eta “Euskaldunak” hitzaurrearen izenburuek guk “Barrokoa” (Bar) deitu dugun grafia (26a-koa) dakarten edo ez (Ezbar) ezarri dugu eta ortografia ataleko filetea gorritz (G) edo beltzez (B) tintaturik dagoen zehaztu dugu ondoren. Azkenik, *ABIURKIDA-ABIURKIGILLEA* sarreraren desbideratzea zuzendurik dagoenez erantsi dugu.

Atera ditzagun ondorioak. Ikusten denez, liburuki kopuruak ez du zerikusirik edizioen auzian, *SS2* eta *Mitx3* aleak erkatuz, esate baterako, berehala ikusten baitugu, gainontzeko ezaugarriak berdinak izan arren, batek liburuki bat duela eta besteak bi. Gure laginaren, hots, 48 aleen %68'75, halere, liburuki bakar batean dago enkoaderaturik. Bai liburuki bakar batean bai bitan enkoadernatutako aletan lehen edo bigarren edizioari egindako erreferentziak aurkitzen ditugu azal txikian, beraz, ez du horrek edizioarekin zerikusirik.

Azalaren koloreak ez digu,aldi berean, bi argitaraldi bereizten lagunduko, *Mitx1* eta *Etx* aleak berdinak baitira guztiz, horretan izan ezik. Laginaren %45'83-k jatorrizkoa ez beste estalki bat du eta jatorrizkoa dutenen artean, antzeko maiztasuna dute estalki urdin, gorri zein berdeek eta denek dituzte liburuki bakar batean edo bitan enkoadernatutako adibideak. Horri buruz *Mitx3*, *NLO1* eta *NLO2* aleek informazio garrantzitsua ematen digute: lehenak “Imprenta y Encuadernación Pío Garmendia. Irún” ex-librisa du eta beste biek Iruñeko Santiago Alonso liburudendaren zigilua. Badakigu Garmendia eta Alonsoren dendak hiztegiaren harpidetza egiteko lekuak izan zirela; *BDL3* eta *Bou2* aleak harpidedunei banatu zitzaizen prospektuarekin enkoadernatu ziren eta bertan ikusi dugu datu hori. Enkoaderazioaren guarda alearik ale aldatzen dela ere kontuan hartuta, kasu batzuetan bederen, aleen en-

⁵⁶ KMK.

koadernazioa harpidetza-lekuetan egin zela pentsa daiteke⁵⁷. Hori bai, Alonsok enkoadernatutako ale baten estalkia gorria den bitartean, bestearena berdea da. Ez dugu jakiterik izan zergatik agertzen diren kolore desberdinetan. Hemendik aurrera estalkiaren eta liburuki kopuruaren datuak alde batera utziko ditugu, joera garbirik agertzen ez digutelako.

Bigarren liburukiei erreparatuko diegu orain. Koherenteak dira euren artean, denek baitaramate lehen edizioaren marka eta egilearen izena euskaraz azal txikian, baita B tipografiako azala ere; 1884ko dataduna eta ediziorik aipatzen ez duena⁵⁸.

Nahas-mahasa eta desberdintasunak lehen liburukietan ditugu, eta liburuki bakarreko edizioetan, jakina, baina badira joera koherenteak kaos horren erdian. Bi multzo nabarmen daude:

- (28) A) Azal txikian 1.GA, Gipuzkoari eskaintza eta “Euskaldunak” hitzaurrearen tipografia barrokoa, A erako azala eta filete gorria duten aleak.
- B) Azal txikian 2.EU, Gipuzkoari eskaintza eta “Euskaldunak” hitzaurrearen tipografia ez barrokoa, C erako azala eta filete beltza dutenak.

Bi banaketa horietako bat estuki jarraitzen duten aleek laginaren %93⁷⁵ hartzen dute, gehiengo zabala, beraz. Ehuneko altu horretatik %71¹ lehen multzoari dagozkio eta gainontzekoak bigarrenari. Ehuneko horietatik kanpo geratzen diren ale bereziak hiru dira: *Azk2-k* A banaketari darraio baina 1.EU azal txikia du, bigarren liburukietan baino ageri ez dena. *BUL2* ale bixia da, A multzoari dagokion A azala eta filete gorria dituen bitartean, tipografia ez barrokoa eta 2.EU azal txikia baitu. Baina are bitxiagoa da *Bou2*: bi liburukitan enkoadernatuta, “Euskaldunak” eta Gipuzkoari eskaintza bi liburukietan dator, batean grafia barrokoan eta bestean ez. Gainera, 1.GA azal txikia du bigarren liburukiak, baina C tankerako azala.

Nabarmena da, hortaz, (28)-ri erreparatuta, hiztegiak bi argitalpen izan zituela. Lehenengoan tipografia barrokoa, 1.GA azal txikia eta A azala erabili bazuten, bigarrenean hori aldatu egin zen. Baina auzia ez da horren erraza.

Lehenik eta behin, garaiko kazetetan ez dugu bigarren argitalpen horren erreferentzia bakar bat ere aurkitu. *BDL3* eta *Bou2* aleak harpidedunei banatu zitzaizen prospektuarekin enkoadernatu zituztela esan dugu eta prospektu hori irakurrita, dakigun gauza bakarra da, hiztegia faszikuluka erosi beharrean amaieran osorik erostea prezio bikoitzean zela, baina ez dugu amaieran erosi zuten horiek bigarren edizioa eskuratu zutela pentsatzeko arrazoirik. Are gehiago, bigarren argitalpentzat jo beharko genituzkeen (28B) saileko aleen azalak 1883ko data du eta bigarren argitalpena egiteko goitzxo dela usate dugu, orduan oraindik koadernoak banatzen ari baitziren (cf. 22).

⁵⁷ Are gehiago, azala, azal txikia, kromoa, kromoaren deskribapena, “Prólogo”, “Euskaldunak” hitzaurrea, Gipuzkoari eskaintza, Akademiaren oniritzia eta laburduren zerrenda ez dira ale guztietan ordena berebean agertzen. Azken biak, gainera, ale batzuetan falta dira, edo amaieran daude enkoadernaturik: ez ziren gainontzekoekin batera egin eta banatu, beranduago baizik.

⁵⁸ Salbuespena *Bou2* da, baina ale hori liburu saltzaileak berak enkoadernatu zuela aitortu zigan. Ohartu gabe edo, lehen liburukiari zegozkion azala eta azal txikia bigarren liburukiarekin enkoadernatu zituen eta alderantziz. Hori zuzenduta, ale arrunta da.

B multzoko, hau da, ustezko bigarren argitalpeneko zazpi alek, gainera, <A> letran akats nabarmenak dituzte (cf. 29). Horren erakusgarri gisa hautatu ditugun *ABIURKIGILLEA-ABIURKIDA* sarreraren desbideratzea ageri dute, *AINA* dakarte *ADINA*-ren ordez, *ABRUSKA* sarreraren “bocaa-bajo” dator eta sarrera multzo zenbait desbideratuta ageri dira. A taldeko aleetan eta B-ko gehienetan akatsok zuzendurik daude, ordea. Nabari da, dena den, huts horiek zuzentzeko inprimategiko plantxak berriz atondu behar izan zituztela, jatorrian ez zeuden akats berriak ere egin baitzituzten, esaterako, *ABOST* ezarri *ABOTS* sarrera-buruaren ordez, edo “*ABRIKOTZEA: Albericoqu ero*” hutsuneduna, lehendik zegoen “Albericoquero” sarreraren ordainetan.

(29)	A	B-ko ale batzuk
	Desbideratzerik gabea	Desbiderateduna
	<i>ADINA</i>	<i>AINA</i>
	<i>bocaa-abajo</i>	<i>bocaa-bajo</i>
	<i>ABOST</i>	<i>ABOTS</i>
	<i>Albericoq uero</i>	<i>Albericoquero</i>

Bistakoa den gauza bakarra da, hori horrela, <A> letrak edo, horrek baino gehiago, segur aski lehen koadernoak (*A*>*AINGURAK-GORATU* sarrerak dituen), B multzoko aleen artean bederen bi argitalpen izan zituela, inprimatzen hasita akats mordoa zituela oharturik, zuzentzeari ekin baitzioten. Gure ustez berezia dena, <A> letrako aipatu akatsak bigarren argitalpentzat jotzen den horretan gertatu izana da eta ez lehenean, espero bezala.

Labur esanda, ez dakigu zergatik dioten azal txiki zenbaitek eta C erako azalek 2. argitalpenari dagozkiola, hala bada, lehen argitalpena amaitu zenetik oso denbora gutxian egin behar izan zuten-eta. Arakatu ditugun 48 aleetatik sei, ia ziur gaude jabeek harpidetza bidez jaso zituztela (*IAL2*, *Deu3*, *SB*, *Kap2*, *DUL1* eta *Kap3*), izan ere, harpidedunen zerrendan ageri diren honako erreferentziak baitituzte: lehenak Gasteizko “Instituto de Segunda Enseñanza”-ren zigilua du, bigarrenak José Letamendiren sinadura eta 1884ko data darama, *SB* alea Sociedad Bilbainak berak gordetzen du gaur egun, hurrengoak Kaputxinoen zigilua du eta beraien liburutegian dago, *DUL1* Fermín Lasalaren ale bat da eta azkenak Lucas Garcandiaren sinadura darama, harpideduna hori ere. *Bou2* aleak, gainera, harpidedunei banatu zitzairen prospektua eta bi koadernoren jatorrizko estalkiak gordetzen ditu: α taldea deituko diogu ale sorta honi.

Bestetik, β taldean *Mitx3*, *NLO1*, *NLO2* eta *BDL3* aleak daude: hauek ere harpidetza bidez jaso izan zirela pentsa dezakegu, baina argudioak eta, beraz, ustea ere, ahulagoak dira. *Mitx3*, *NLO1* eta *NLO2* harpidetza lekuak izan ziren liburudenden zigilua daramate, eta *BDL3*-k prospektua du.

Ale horiek guztiak harpidetzaz jaso baziren, hiztegia inprimatzen hasi eta berehalakoak behar zuten izan; inondik ere ez bigarren argitalpena. Gainera, euren artean berdinak izan behar zuten. Ikus dezagun:

Hasteko, bai α bai β taldeko ale guztiak desbideratzea eta berorrek ordezkatzen dituen gainontzeko akats zein aldaketa guztiak zuzendurik dituzte. Ale akasduak, hartara, edo harpidetzaz jasotako horiek baino lehenagoak dira edo bigarren argitalpenean, <A> letra berriz atondu zutenean,

lehen edizioan baino huts gehiago egin zituzten. Gure ustez <A> letrako ale akastunak hasierako probetan egindakoak behar dute izan. Hatsarrean baztertu baziren ere, ale zuzenduak agortzean akasdunak erabili izana ezin da hipotesi gisa baztertu.

Bestalde, α multzoko bost aleetatik lauk (28B) taldearekin egiten dute bat eta beste biek (28A) taldearekin. β multzoan, ordea, bostetik bakarra sartzten da B-n. Bi multzoak batera hartuta, harpidetza bidez jaso omen ziren aleetan sei (28A) taldeari dagozkion bitartean, bostek B-ri darraiole.

Hartara, ez dugu bi argitalpen izan zirela defendatzeko argudio irmorik eta, berezia badirudi ere, ematen du bai (28A) bai (28B) multzoko aleak ia garaikideak izan zirela, edukian elkarren arteko alde handirik gabeak, B multzoko ale batzuek dituzten aipatutako desbideratze, zuzentze eta osatzeak alde batera utzita.

5. ONDORIOAK

Aizkibelen *Diccionario Basco-Español*-en argitalpena uste baino konplexuagoa izan zela erakusten saiatu gara. Alde batetik, hiztegia Aizkibelen nahiaren kontra argitaratu zen, egilearen ustetan ez baitzegoen behar bezala amaiturik.

Bestalde, eskuizkribuaren deskribapena eman dugu eta nahiz eta segur aski hiztegiaren eskuizkribu bat baino gehiago egon, Lópezek argitalpena egiteko Koldo Mitxelena Kulturuneak gordetzen duena baliatu zuela frogatu dugu. Eskuzkribuaren datatze bat proposatu dugu, bi idatzaldi bederen izan dituela kontuan izanik eta Aizkibelek baino, bere idazkariak egindako kopia izan daitekeelako zalantza piztu zaigu. Gainera, argitalpenean ageri den eranskinaren eskuizkribuaren arrastorik aurkitu ez badugu ere, hura noiz galdu zatekeen iradoki dugu.

Eskuizkribua eta argitalpena konparatuta, alde tipografiko, ortografiko eta diakritiko nabarmenak daudela adierazi ondoren, sarreren gidoi bidezko banaketa morfologikoa Aizkibelena ez, baina editorearena dela argitu dugu. Aizkibelek proposatutako ortografia berriaren aplikazioa, bai eskuizkribuan bai argitalpenean arazo iturri izan zen, López editoreak grafia berrira egokitzeko saioa egin zuela bistakoa den arren.

Eskuizkributik argitalpenerako jauzi horretan desbideratze zenbait zuzendu dira, baina badira zuzendu gabeak eta gazki zuzenduak ere, franko <Ch>-ren kokapen alfabetiko berezitik eratorriak. Akats horiek <A> letraren edo lehen koadernoaren bi argitalpen gutxienez izan zirela ikusteko bidea eman digute.

Eskuizkribuak eta argitalpenak dakartzaten iturrien laburdurek eta definizioetan egindako gehiketa zein zuzenketek Lópezek *Hiztegi Hirukoitza* baliatu zuela agerian utzi dute, baina zuzenketak ez ziren zorrotz eta sistematiakoak izan, ez baitzituzten argitalpenerako sarrera guztiak jatorrizko iturrietan begiratu: ondorioz, akatsak daude, horietako batzuk edizioan baino aurkitzen ahal ez direnak. Beste alde batetik, “Prólogo”-tik erauzitako akatsek inprentako plantxen atontzailearen euskararekiko ezagutza falta edo zuzentzailearen arreta eskasa iradokitzen digute.

48 ale inprimatuen arteko erkaketan dagoeneko, hiztegia faszikuluka banatu zela adierazi dugu. Faszikulu bakoitzaren tamaina eta prezioa zein izan

zen ere jakin dugu, hiztegiaren argitalpen prozesuaren kronograma bat ematearekin batean, Lópezek inprimatzeko baimena eskatu zuenetik argitalpena amaitu zen bitarteko epea jasotzen duena.

Azkenik, hiztegiei begiratuta bi argitalpen egon zirela ematen badu ere, hori bermatzen duten datuak ilunak direla ikusi dugu, nahiz eta nabarmena den ale guztiak bi multzo nagusitan banatzen ahal direla.

Finean, hiztegi arrakastatsu honen inguruko argitalpen prozesuaren eta orduko ohitura editorialen inguruko datu ezezagunak bihurtu ditugu hona eta horiek sortu dituzten arazoei irtenbidea bilatzen saiatu gara.

6. ERREFERENTZIAK

- AIZKIBEL, J. F., 1883-4. *Diccionario Basco-Español titulado euskeratik erderara biurtzeko itztegia*. Casa Editorial de Eusebio López: Tolosa. Berrargitalpen faksimilea: 1989, Gestin-graf: Bilbo. On line Sancho el Sabio Fundazioan: <<http://archinet.fsancho-sabio.es/archinet/main.asp?IdObj=2337212&idOD=2337212&opc=DGT&tem=&desglose=1&showImg=1>> [kontsulta: 2011-01-18].
- AGIRRE [Aguirre], A., 1983. "Reseña Histórica. José Francisco Aizkibel Epelde (1798-1865)" *Cuadernos de Sección: Hizkuntza eta Literatura* 2. 237-288. On line *Euskomedian*: <<http://hedatuz.euskomedia.org/70/1/02237288.pdf>> [kontsulta: 2011-01-18].
- ARANBARRI, F., s. d. "Aizkibelen Hiztegia". UPV-EHUko eskuizkribua.
- BECERRO DE BENGUA, R., 1885. "Renacimiento de la lengua bascongada. Obras editadas por D. Eusebio López. Diccionario Basco-Español de Aizkibel.-Gramática Euskara de Don A. Campión." *Euskal-Erria* XII. 481-487.
- CAMPION, A., 1884. *Gramática de los Cuatro Dialectos Literarios de la Lengua Éuskara*. Casa Editorial de Eusebio López: Tolosa. Berrargitalpen faksimilea: 1977, La Gran Enciclopedia Vasca. On line: <<http://www.archive.org/details/gramticadeloscu00campgoog>> [kontsulta: 2011-01-19].
- CUBERO, J., s.d. "Aizkibelen *Euzkeratik Erderara Biurtzeko Itztegia*-ren deskribapena. UPV-EHUko eskuizkribua.
- ELOSEGI [Elósegui], J., 1979. "Algo sobre José Francisco de Aizkibel (1798-1865)" in *Homenaje A D. Julio Urquijo e Ybarra*, I. Número extraordinario del *BRSVAP*. Museo de San Telmo: Donostia. 181-196.
- GARATE, J., 1947-8. "Apuntes acerca de José-Francisco Aizkibel" *Eusko-Yakintza* 1:5-6. 525-539 eta 2:1. 23-36. Euskal Museoa: Baiona.
- , 1962, "Nuevos datos acerca de Aizkibel" *Euskera* 7. 75-120.
- , 1968. "El segundo trabajo de Aizkibel" *Euskera* 13. 119-125.
- GARMENDIA, J., 1994. "Un inédito de Aizkibel" *Euskera* 39. 487-499.
- GARRIGA, G., 1952. "Un manuscrito incógnito de Aizkibel" *Boletín Americano de Estudios Vascos* 11. Ekin: Buenos Aires. 238-240.
- GÓMEZ, R., 2008. "Berriz Aizkibelen *Euskera* eskuizkribuaz: edizioa eta iturriak" *ASJU* XLII: 1. 333-380. Zirriborroa on line *Artxikeren*: <<http://artxiker.ccsd.cnrs.fr/docs/00/50/71/21/PDF/Gomez2008-Aizkibel-edizioa.pdf>> [kontsulta: 2011-01-18].
- , 2009. "Las ideas lingüísticas de José Francisco Aizkibel: el manuscrito *Euskera*" in V. Gaviño Rodríguez (arg.), *Las ideas y realidades lingüísticas en los siglos XVIII y XIX*. Universidad de Cádiz: Cádiz. 261-277. Zirriborroa on line *Artxikeren*: <<http://halshs.archives-ouvertes.fr/docs/00/18/66/91/PDF/Gomez2007-Aizkibel.pdf>> [kontsulta: 2011-01-18].
- HUMBOLDT, W. VON, 1817. *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*. Berlin: Vossische Buchhandlung. On line: <<http://books.google.es/books?id=3oECAAQAQAAJ&dq=mithridates&hl=en&pg=PR1#v=onepage&q&f=false>> [kontsulta: 2011-02-10].
- , 1921. *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vas-kischen Sprache*. F. Dümmler: Berlin. On line: <[http://books.google.com/books?id=8qkQAAlAAAJ&dq=Pr%C3%BCfung%20der%20Untersuchungen%20C3%BCber%20die%20Urbewohner%20Hispaniens%20vermittelt%](http://books.google.com/books?id=8qkQAAlAAAJ&dq=Pr%C3%BCfung%20der%20Untersuchungen%20C3%BCber%20die%20Urbewohner%20Hispaniens%20vermittelt%20)>

- 20der%20Vaskischen%20Sprache&hl=es&pg=PR1#v=onepage&q&f=false> [kontsulta: 2011-05-26].
- IZENGABEA, 1882. “Variedades Euskaras” *Euskal-Erria* VI. Apirila-Ekaina. 57-61.
- IZENGABEA, 1882. “Noticias bibliográficas y literarias” *Euskal-Erria* VII. Uztaila-Abendua. 221-226.
- LARRAMENDI, M., 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin*. Bartholomé Riesgo y Montero: Donostia. Berrargitalpen faksimilea: 1984, Txertoa. On line *Memoria Digital Vascan*: <<http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/1773>> [kontsulta: 2011-01-20].
- MANTEROLA, J., 1883. “Noticias bibliográficas y literarias” *Euskal-Erria* IX. Bigarren seihilekoa. 447-448.
- MARTÍNEZ DE SOUSA, J. 2003. “La forma gráfica de los diccionarios”. On line: <<http://www.martinezdesousa.net/formadiccio.pdf>> [kontsulta: 2011-02-22].
- SARASOLA, I., 2002. “Euskal hiztegi gintzaren historiako oharak: Añibarro, Iztueta, eta Aizkibelen hiztegiez, eta Azkueren hiztegi gintzaz”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Larkarra (arg.), *Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk. ASJUren gehigarriak XLIV*. UPV/EHU: Bilbo.
- SATRUSTEGI [Satrústegui], J. M., 1977. “Un documento de José Francisco de Aizkibel sobre la lengua vasca” *ASJU* XI. 129-154.
- , 1979a. “Aizkibel euskara batuaren aitzindari” *Euskera* 24. 153-158.
- , 1979b. “¿Cuál es el Paradero de los Originales de Aizkibel?” *Boletín Americano de Estudios Vascos* 30. Ekin: Buenos Aires.
- URRUTIA, E., 1924. “Biografía: José Francisco de Aizkibel” *Euskalerraren Alde*. 307-308.
- URKIXO [Urquijo], J., 1933. “Introducción a la versión española de las “Correcciones y adiciones” de Humboldt, al Mithridates de Adelung” *RIEV* 243. 323-498.

I ERANSKINA

Laburdura	Alea
<i>Ast1</i>	Bilboko Astarloa liburudendako ale bat
<i>Ast2</i>	Bilboko Astarloa liburudendako beste ale bat
<i>Azk1</i>	Bilboko Azkue bibliotekako BOH-18-I/II alea
<i>Azk2</i>	Bilboko Azkue bibliotekako OIH-1479 alea
<i>Azk3</i>	Bilboko Azkue bibliotekako alea
<i>BDL1</i>	Bizkaiko Diputazioko Liburutegiko LAND-205 alea
<i>BDL2</i>	Bizkaiko Diputazioko Liburutegiko VA-878-I/II alea
<i>BDL3</i>	Bizkaiko Diputazioko Liburutegiko LAR-188 alea
<i>BDL4</i>	Bizkaiko Diputazioko Liburutegiko VA-1153 alea
<i>BDL5</i>	Bizkaiko Diputazioko Liburutegiko VA-1154 alea
<i>Bou1</i>	Bilboko Boulandier liburudendako ale bat
<i>Bou2</i>	Bilboko Boulandier liburudendako beste ale bat
<i>Bou3</i>	Bilboko Boulandier liburudendako beste ale bat
<i>BUL1</i>	Bilboko Udal Liburutegiko 81054 alea
<i>BUL2</i>	Bilboko Udal Liburutegiko 81055 alea
<i>BUL3</i>	Bilboko Udal Liburutegiko 68759 alea
<i>BUL4</i>	Bilboko Udal Liburutegiko 81050 eta 81051 liburukiak
<i>BUL5</i>	Bilboko Udal Liburutegiko 81052 eta 65596 liburukiak
<i>BUL6</i>	Bilboko Udal Liburutegiko M-9059/I eta 81053 liburukiak
<i>Deu1</i>	Deustuko Unibertsitateko Liburutegiko ale bat
<i>Deu2</i>	Deustuko Unibertsitateko Liburutegiko beste ale bat
<i>Deu3</i>	Deustuko Unibertsitateko Liburutegiko beste ale bat
<i>DUL1</i>	Donostiako Udal Liburutegiko M 20-3-12 alea
<i>DUL2</i>	Donostiako Udal Liburutegiko V5598 alea
<i>DUL3</i>	Donostiako Udal Liburutegiko V5599 alea
<i>DUL4</i>	Donostiako Udal Liburutegiko V5600 alea
<i>DUL5</i>	Donostiako Udal Liburutegiko V8638 alea
<i>EHU</i>	EHU-ko Koldo Mitxelena liburutegiko 809.169(03) AIZ fotokopia
<i>EL1</i>	Eusko Legebiltzarreko liburutegiko XIX 791 alea
<i>EL2</i>	Eusko Legebiltzarreko liburutegiko XIX 690/1-2 alea
<i>Etx</i>	Gure eskutan gordetzen dugun alea
<i>IAL1</i>	Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegiko DA/5274 alea
<i>IAL1</i>	Gasteizko Ignacio Aldecoa liburutegiko DA/5273 alea
<i>IEA</i>	Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko ale bat
<i>Kap1</i>	Iruñeko Kaputxinoen komentuko liburutegiko R36-7-02 alea
<i>Kap2</i>	Iruñeko Kaputxinoen komentuko liburutegiko R56-9-16 alea
<i>Kap3</i>	Iruñeko Kaputxinoen komentuko liburutegiko R56-9-17 alea
<i>Mitx1</i>	Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko 4 alea
<i>Mitx2</i>	Donostiako KMK-ko J.U. 3108 alea
<i>Mitx3</i>	Donostiako KMK-ko 50280 alea
<i>NAO</i>	Nafarroako Artxibo Orokorreko FBH/1319 alea
<i>NLO1</i>	Nafarroako Liburutegi orokorreko FAG-D/21 alea
<i>NLO2</i>	Nafarroako Liburutegi Orokorreko 17-6/79 alea
<i>SB</i>	Bilboko Sociedad Bilbainako alea
<i>SS1</i>	Sancho el Sabio fundazioko ATV 20912 alea
<i>SS2</i>	Sancho el Sabio fundazioko ATV 20913 alea
<i>TFL1</i>	Gasteizko Teologia Fakultateko PV-Fol 11 alea
<i>TFL2</i>	Gasteizko Teologia Fakultateko PV-Fol 12/1-2 alea

II ERANSKINA

Aizkibel										
Alea	Estalkia	Liburukiak	Azal txikia	Azala	Edizioa	Data	Euskaldunak	Gipuzkoa	Filetea	Desbideratzea zuzendurik
Ast1	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Ast2	Gorria	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Azk1	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
Azk2	Beste bat	1	1.EU	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Azk3	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BDL1	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BDL2	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
BDL3	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BDL4	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BDL5	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Bou1	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	?	Bai
Bou2	Beste bat	2	2.EU/1.GA	B/C	Ø/2.	1884/1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
Bou3	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BUL1	Urdina	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BUL2	Beste bat	1	2.EU	A	Ø	Ø	Ezbar	Ezbar	G	Bai
BUL3	Urdina	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
BUL4	Urdina	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	?	Bar	G	Bai
BUL5	Urdina	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
BUL6	Urdina	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
Deu1	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
Deu2	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Deu3	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
DUL1	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
DUL2	Berdea	2	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Ez
DUL3	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
DUL4	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
DUL5	Urdina	1	?	C	2.	1883	Ezbar	?	B	Bai
EHU	Beste bat	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	?	Ez
EL1	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Ez
EL2	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
EtX	Gorria	2	2.EU/1.EU	C/B	2./Ø	1883/1884	Ezbar	Ezbar	B	Ez
IAL1	Beste bat	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
IAL2	Berdea	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
IEA	Gorria	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	?	Bai
Kap1	Urdina	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Kap2	Gorria	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
Kap3	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
Mitx1	Berdea	2	2.EU/1.EU	C/B	2./Ø	1883/1884	Ezbar	Ezbar	B	Ez
Mitx2	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	?	Ez
Mitx3	Gorria	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
NAO	Berdea	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	?	B	Bai
NLO1	Berdea	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
NLO2	Gorria	1	1.GA	A	Ø	Ø	Bar	Bar	G	Bai
SB	Gorria	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
SS1	Gorria	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Ez
SS2	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai
TFL1	Berdea	1	2.EU	C	2.	1883	Ezbar	Ezbar	B	Bai
TFL2	Beste bat	2	1.GA/1.EU	A/B	Ø/Ø	Ø/1884	Bar	Bar	G	Bai

LABURPENA

Aizkibelen Euzkeratik erderara biurtzeko itztegia: *Eskuizkributik argitalpena*
Gutxitan dugu euskalaritzan testu baten edizioa eta eskuizkribua erkatzeko aukera; Aizkibelen *Diccionario Basco-Español*-en kasuan ordea, hala da. Lan honetan eskuizkribu hori eta egilea hil ondoren argitaratutako bertsoa konparatu ditugu. Gordetzen den eskuizkribuari so, edizioaren iturri dela erakutsi dugu eta datatu ondoan, egiletasun zalantzak agertu ditugu. Argitalpenaren eta eskuizkribuaren arteko alderik nabarmenenak agertu ditugu, bai forman, bai edukian, eta horren balizko arrazoiak bilatu. Azkenik, edizioaren barnean aiez ale ere aldeak daudela ikusita, edizio kopuruaren inguruko hausnarketa egin dugu eta desberdintasun horien arrazoiak eman, hiztegiaren inpresio eta banaketa lanen kronologia eta deskribapena eginez.

Gako hitzak: Aizkibel, Diccionario Basco-Español, eskuizkribua, lexicografia.

RESUMEN

Euzkeratik erderara biurtzeko itztegia *de Aizkibel: Del manuscrito a la publicación*
En el mundo de la vascolología, en contadas ocasiones tenemos la oportunidad de comparar la edición y el manuscrito de un texto; en el caso del *Diccionario Basco-Español* de Aizkibel, sin embargo, es así. En este trabajo hemos comparado ese manuscrito y la versión publicada tras la muerte del autor. En lo que al manuscrito se refiere, hemos mostrado que se trata de la fuente de la edición y, tras datarlo, hemos expresado nuestras dudas en torno a la autoría. Hemos extraído las diferencias más reseñables entre la publicación y el manuscrito, sean formales o de contenido, y les hemos buscado una posible justificación. Por último, tras observar que incluso en la propia edición hay diferencias entre ejemplares, hemos investigado en torno al número de ediciones y hemos tratado de explicar dichas diferencias, describiendo la cronología de las labores de impresión y distribución del diccionario.

Palabras clave: Aizkibel, Diccionario Basco-Español, lexicografía, manuscrito.

RÉSUMÉ

Euzkeratik erderara biurtzeko itztegia *de Aizkibel: du manuscrit à la publication*
Dans le monde la bascologie, nous avons rarement la chance de comparer l'édition et le manuscrit d'un texte: toutefois, le cas se présente pour le Dictionnaire Basque-Espagnol d'Aizkibel. Dans ce travail, nous avons comparé ce manuscrit à la version publiée après la mort de l'auteur. En ce qui concerne le manuscrit, nous avons démontré qu'il s'agit de la source de l'édition et, après l'avoir daté, nous avons exprimé nos doutes quant à sa paternité littéraire. Nous avons extrait les différences les plus remarquables entre la publication et le manuscrit, que ce soit dans la forme ou le contenu, et nous leur avons cherché une justification possible. Enfin, après avoir observé qu'il y a des différences entre les exemplaires au sein même de l'édition, nous avons fait des recherches sur le nombre d'éditions et avons tenté d'expliquer ces différences, en décrivant la chronologie des travaux d'impression et de distribution du dictionnaire.

Mots clé: Aizkibel, Dictionnaire Basque-Espagnol, lexicographie, manuscrit.

ABSTRACT

Aizkibel's Euzkeratik erderara biurtzeko itzategia: *from manuscript to publication*

In the world of Basque studies, we rarely have the opportunity to compare the published version and the manuscript of a text: in the case of Aizkibel's Basque-Spanish Dictionary, however, we do. In this article, we compare the manuscript and the version published after the death of the author. Concerning the manuscript, we show that it is the source of the publication and, after dating it, we express our doubts regarding its authorship. We have extracted the most remarkable differences between the publication and the manuscript, in terms of both form and content, and seek a potential justification. Finally, having observed that there are even differences between copies of the publication itself, we investigate the number of editions and try to explain these differences, describing the chronology of the printing and distribution of the dictionary.

Key words: Aizkibel, Basque-Spanish Dictionary, lexicography, manuscript.